



**ASTI-LEKU  
IKASTOLA  
IKASKUNTZA  
KOOPERATIBAKO  
ESTATUTUAK**

**Estatu berriak 2009-11-25ean  
egindako Kooperatibako Batzar Nagusi  
Berezian erabakitakoaren arabera**

# Aurkibidea

## I. KAPITULUA

### Deitura, Xedea, Egoitza Soziala, Iraupena eta lurralde-eremua

1. artikulua	Deitura	8
2. artikulua	Xedea	8
3. artikulua	Egoitza soziala	8
4. artikulua	Iraupena eta lurralde-eremua	9

## II. KAPITULUA

### Bazkideak

5. artikulua	Bazkide izan daitezkeenak	10
6. artikulua	Onarpenerako betebeharrak	11
7. artikulua	Onarpenari buruzko erabakiak	14
8. artikulua	Onarpen-prozesua	14
9. artikulua	Onarpenaren aurkapena	14
10. artikulua	Eskubide eta betebeharrak sozialen hasiera	15
11. artikulua	Bazkideen betebeharrak	15
12. artikulua	Bazkideen eskubideak	17
13. artikulua	Informazio-eskubidea	18
14. artikulua	Bazkidearen borondatezko baja	20
15. artikulua	Bazkidearen derrigorrezko baja	21
16. artikulua	Bazkide ez-aktiboak	21
17. artikulua	Bazkide laguntzaileak. Eskubide eta betebeharrak	22

## III. KAPITULUA

### Sozietateko diziplina-arauak

18. artikulua	Bazkideen hutsegite-motak	23
19. artikulua	Hutsegite sozialengatiko zehapenak	24
20. artikulua	Zehapen-prozedura	25

21. artikulua	Kanporatzea	26
22. artikulua	Barne-antolamendu funtzionalaren oinarritzko elementuak	27

#### IV. KAPITULUA

##### Kooperatibaren ordezkapena eta kudeaketa

23. artikulua	Organo sozialak	29
24. artikulua	Batzar Nagusia	29
25. artikulua	Batzar Nagusirako Deialdia	31
26. artikulua	Batzar Nagusiaren funtzionamendua	32
27. artikulua	Boto-eskubidea	34
28. artikulua	Gehiengoak	35
29. artikulua	Batzar Nagusiko erabakiak aurkatzea	35
30. artikulua	Kontseilu Errektorea. Izaera eta aginpidea	36
31. artikulua	Kontseilu Errektorearen osaera eta berriztatzea	39
32. artikulua	Kontseilu Errektorearen funtzionamendua	41
33. artikulua	Kontseilu Errektorearen inguruko xedapenak	42
34. artikulua	Kontseilu Errektorearen erantzukizunak eta erantzukizun-egintza	44
35. artikulua	Zuzendari-gerentea. Izendapena eta kargu-uztea	45
36. artikulua	Zuzendari-gerentearen betebeharrak eta erantzukizunak	45
37. artikulua	Zaintza-Batzordea. Aginpidea eta funtzionamendua	46
38. artikulua	Errekurtsio-Batzordea	48

#### V. KAPITULUA

##### Kooperatibaren erregimen ekonomikoa

39. artikulua	Erantzukizunak	50
40. artikulua	Sozietate-kapitala	50
41. artikulua	Sozietate-kapitalari eginiko derrigorrezko ekarpenak	51
42. artikulua	Borondatezko ekarpenak	53
43. artikulua	Ekarpenak eguneratzea	53
44. artikulua	Ekarpen interesak	53
45. artikulua	Ekarpenen eskualdatzea	54
46. artikulua	Ekarpenak itzultzea	54
47. artikulua	Parte-hartze bereziak	55
48. artikulua	Sarrera-kuotak eta aldizkakoak	56
49. artikulua	Beste finantziario batzuk	56
50. artikulua	Soberakin garbiak	56
51. artikulua	Eskura dauden soberakinen banatzea	57
52. artikulua	Derrigorrezko fondoak	58
53. artikulua	Borondatezko fondoak	58
54. artikulua	Galerak egozteak	58
55. artikulua	Kontu-Ikuskaritza	59

#### VI. KAPITULUA

##### Dokumentazio soziala eta kontabilitatea

56. artikulua	Dokumentazio soziala	60
57. artikulua	Kontabilitatea	60
58. artikulua	Urteko kontuen gordailua	61

#### VII. KAPITULUA

##### Desegintza eta likidazioa

59. artikulua	Desegiteko kausak eta erabakia	62
60. artikulua	Likidazioa	63

#### AZKEN XEDAPENAK

LEHENA	Kooperatiba-Tartekaritza	64
BIGARRENA	Letratu aholkularia	64

**ASTI-LEKU  
IKASTOLA  
IKASKUNTZA  
KOOPERATIBAKO  
ESTATUTUAK**



# 1. Kapitulumua

## DEITURA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

### 1. ARTIKULUA. Deitura.

ASTI-LEKU, KOOP. E. deituraz, Irakaskuntza Kooperatiba bat eratu zen Portugaleten (Bizkaia), abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen Printzipio eta Xedapenen eta legezko aginduen eta Estatutu hauen arabera, bai eta, hala denean, Barne Araubideko Araudiaren arabera ere.

### 2. ARTIKULUA. Xedea.

Kooperatiba-Elkarte honen xeda araututako irakaskuntzak dituen ziklo eta maila guztietarako zerbitzuak ematea da, baita bazkideek eska dezaketen irakaskuntza ez arautua ere, batez ere euskal kultua eta hizkuntza garatu eta sustatzera zuzendutako irakaskuntza, bai eta kristau baloreak ere, eta hauek Kooperatibak duen lurralde-eremuan txertatzera.

Euskara hizkuntza ofizialtzat hartzen da. Hala ere, ikastolaren eremu soziolinguistikoa kontuan hartuta, euskara lehenetsiko den arren, gainerako hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da

Era berean, elkarte honen xede izango da zerbitzu hauek eskaintzea: kirol ekimenak, aisialdirakoak, sozialak eta kulturalak. Bazkideek eta euren familia-koek erabili ahal izango dituzte euren aisian edo denbora librean. Horiekin batera, Kooperatiba osatzen duten lagunen osoko kultur garapen hobea lortzea xede duten kultura orokorreko ikasketa zerbitzuak eskainiko zaizkie bazkideei eta euren familiakoei.

### 3. ARTIKULUA. Egoitza soziala.

Egoitza soziala Portugaleteko (Bizkaia) Grumete Diego 19 kalean finkatzen da, eta Kontseilu Errektoreak erabaki ahal izango du udalerrri berean egin ala izango den aldaketa, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 79. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **4. ARTIKULUA. Iraupena eta lurralde eremua.**

*Asti-Leku Ikastola Ikaskuntza Kooperatibako Estatutuak*


---

BAT.- Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da.

BI.- Kooperatibaren jardueraren lurralde-eremua Bizkaiko Lurralde Historiakora zirkunskribatu eta mugatuko da, eta zerbitzuak ematerako orduan, eragin eremu naturala duen Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldean izango du eragina, batez ere.

*Asti-Leku Ikastola Ikaskuntza Kooperatibako Estatutuak*

---



## 5. ARTIKULUA. Bazkide izan daitezkeenak.

BAT.- Bazkide erabiltzaileak

a) Kooperatiba honetan seme-alabak edo tutoretzapekoak dituzten gurasoak, ordezkariak edo tutoreak.

Onarpenaren unean kooperatibari jakinarazi beharko zaio zein guraso, ordezkari edo tutore izango den bazkidea, bakarra izan daiteke eta

b) Adin nagusiko ikasleak eurak, Kooperatibak hala zehaztutako maila eta inguruabarretan.

c) Entitate eta erakunde publiko eta erabilera publikoko pribatuak, baita ongileak ere, adin txikiko ikasleen edo gai ez direnen legezko zaintza eta babesa betetzen dutenean. Baita ikasle helduen ordezkari direnean ere, ikasle hauek aipatu erakundeek eraendutako zentro, egoitza edo etxeetan jasota badaude eta hauek berariaz ordezkari izan eman badiete.

Gaitasun juridiko propioa duten adin nagusiko pertsona fisikoak.

BI.- Bazkide laguntzaileak

Pertsona fisiko edo juridikoak, Kooperatibaren jardueran zuzenean parte hartu ez, baina xede sozialak lortzen lagundu ahal dutenak, eta gainerako bazkideekin batera interes bat benetakotzen dutenak.

Erabiltzaile izateari utzi eta Kooperatiban parte hartu nahi duten bazkideak, bazkide laguntzaile bilakatuko dira.

HIRU.- Lan-bazkideak.

Kooperatiban euren lana egin eta garatzeko gaitasuna duten pertsonak, eta Estatutu hauek sinatzerakoan onarturiko eskubide eta betebeharez jabeturik, hauek leial eta eraginkortasunez betetzera konprometitzen badira.

Bazkide izaera galtzeak berarekin dakar, ondorio bezala, Kooperatiban egiten zen lanari uztea.

Lan-bazkide izaeraren iraupena mugagabea da, baina Kooperatibarekin iraupen zehatzeko lotura soziala izan dezakete, beti ere legeak horretarako aurreikusitako mugen barruan.

LAU.- Bazkide ez-aktiboak.

Bazkide ez-aktiboak izango dira, 16. artikuluan ezarritako baldintza formalk eta antzinakotasuna edukita, lan-bazkide izateari utzi eta Kooperatiban bazkide ez-aktibo bezala sartzeko eskaria egiten dutenak.

## 6. ARTIKULUA. Onarpenerako betebeharrak.

BAT.- Norbait bazkide erabiltzaile onartzeko, oro har, ondorengo baldintza bete beharko ditu:

a) Hamazortzi urte baino gehiago edo nortasun juridiko propioa izatea.

b) Estatutu hauetan, edo Batzar Nagusian erabaki eta indarreko beste akordioetan kapital sozialaren gaineko ekarpenei buruz ezarritako konpromisoak onartu, eta bazkide hauentzat han ezartzen den onartu eta hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.

c) Estatutu sozial hauetan mota honetako bazkideentzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa onartzea.

d) Kooperatibako organoek hartutako erabakiak, eta indarreko kooperatibalegedia onartzea eta betetzea, baita Estatutu Sozialak eta Barne-Araudia ere.

e) Kooperatiban ikasle sar daitezkeen, edo Kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzu edo ikasketak jaso ditzaketen seme-alaba edo tutoretzapekoak edukitzea.

f) Kontseilu Errektoreari zuzendutako instantzia idatzi bidez onarpena eskatzea.

BI.- Norbait behin betiko lan-bazkide onartzeko, oro har, ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- a) Bere lanerako kontratatzeko gai izatea.
- b) Estatutu hauetan, edo Batzar nagusian erabaki eta indarreko kapital sozialaren gaineko ekarpenei buruz ezarritako konpromisoak onartu, eta bazkide hauentzat han ezartzen den onartu eta hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- c) Estatutu hauetan mota honetako bazkideentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek baliotasunez hartutako erabakiak, eta indarreko kooperatiba-legedia onartzea eta betetzea, baita Estatutu Sozialak eta Barne-Araudia ere.

Eskaintzen den lanpostua betetzeko behar den gaitasun profesionala edo titulazioaren jabe izatea, eta probaldia ondo gainditzea; probaldia gehienez sei hilabetekoa izango da. Baina Kontseilu Errektoreak lanpostu batzuk jartzen baditu, eta hauek betetzeko baldintza profesional bereziak behar badira, orduan probaldia hamazortzi hilabetera arte luza daitekeena.

Probaldi honetan zehar:

- Bai Kooperatibak, bai bazkide-gaiak deuseztatu ahal dute harremana alde bakar baten erabaki librez.
- Ezin izango da Kooperatibako organoetarako aukeratua izan.
- Ez da egongo ez ekarpena ez sarrera-kuota ordaintzera derrigortuta.
- Ez du izango probaldian Kooperatibak izan ditzakeen galeren egozpenik, ezta kooperatiba-itzulkinerako eskubiderik ere, emaitza positiboetatik soldata-pekoei onartuko zaien diru kopuru bera jasotzeko eskubidearen kaltetan gabe.

f) Kontseilu Errektoreari zuzendutako instantzia idatzi bidez onarpena eskatzea.

HIRU.- Norbait iraupen zehatzeko loturadun lan-bazkide gisa onartzeko, oro har, ondorengo baldintzak bete beharko ditu.

- a) Bere lanerako kontratatzeko gai izatea.

b) Estatutu hauetan, edo Batzar nagusian erabaki eta indarreko kapital sozialaren gaineko ekarpenei buruz ezarritako konpromisoak onartu, eta bazkide hauentzat han ezartzen den onartu eta hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.

c) Estatutu hauetan mota honetako bazkideentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea.

d) Kooperatibako organoek baliotasunez hartutako erabakiak, eta indarreko kooperatiba-legedia onartzea eta betetzea, baita Estatutu Sozialak eta Barne-Araudia ere.

e) Eskaintzen den lanpostua betetzeko behar den gaitasun profesionala edo titulazioaren jabe izatea.

f) Premiazko hitzarmenak eta Kooperatibarekiko sozietate-harremanaren behin-behinekotasuna berariaz zehaztuko duen sozietate-kontratu bat sinatzea.

g) Kontseilu Errektoreari zuzendutako instantzia idatzi bidez onarpena eskatzea.

LAU.- Norbait bazkide laguntzaile onartzeko, oro har, ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

a) Hamazortzi urte baino gehiago edo nortasun juridiko propioa izatea.

b) Estatutu hauetan, edo Batzar Nagusian erabaki eta indarreko kapital sozialaren gaineko ekarpenei buruz ezarritako konpromisoak onartu, eta bazkide hauentzat han ezartzen den onartu eta hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.

Estatutu hauetan mota honetako bazkideentzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa onartzea.

d) Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakiak, eta indarreko kooperatiba-legedia onartzea eta betetzea, baita Estatutu Sozialak eta Barne-araudia ere.



e) Kontseilu Errektoreari zuzendutako instantzia idatzi bidez onarpena eskatzea.

## 7. ARTIKULUA. Onarpenari buruzko erabakiak.

BAT.- Bazkideak onartzeko erabakia Kontseilu Errektoreari dagokio.

BI.- Onarpenari buruzko erabakiak bidezko kausaren batean oinarrituta bakarrik mugatu ahal izango dira:

- a) Kooperatibarentzat lan egiteko gaitasunean.
- b) Kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako objetiboki beharrezko diren bazkide berrien premian.

Norbait onartzeko edo ukatzeko arrazoiak ezin izango dira inoiz Kooperatibaren xede sozialarekiko diskriminatzaile edo bidegabeak izango.

## 8. ARTIKULUA. Onarpen-prozedura.

BAT.- Onarpen-eskaria idatziz aurkeztu beharko zaio Kontseilu Errektoreari, eta honek eskaria hartu ondorengo bi hilabeteen barruan erabaki beharko du.

BI.- Epe hori berariazko erabakirik gabe igarotzen bada, onarpen-eskaria onetsizat joko da.

**HIRU.-** Edozelan ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibako iragarki-taulan argitaratu beharko du onarpenari eta ez onarpenari buruzko erabakia.

## 9. ARTIKULUA. Onarpenaren aurkapena.

BAT.- Onarpena ukatzeko erabakiari Errekurtso-Batzordearen aurrean aurka egin ahal izango dio eskatzaileak jakinarazpenaren ondorengo 20 lanegunetan, eta Errekurtso-Batzordeak, lehenengo interesatuari entzun, eta errekurtsoa jaso ondoren 30 eguneko epea du erabakia hartzeko, eta

interesatuari idatziz

jakinaraziko zaio.

*Asti-Leku Ikastola Ikaskuntza Kooperatibako Estatutuak*

---

BI.- Onarpen-akordioari Batzar Nagusiaren aurrean aurka egin ahal izango zaio, erabakia jakinarazi ondorengo 20 laneguneko epean, bazkideen %10k gutxienez eskatzen badu.

Lan-bazkide bati badagokio, onarpen-akordioari aurka egin ahal izango zaio gainera, lan-bazkideen %20k gutxienez eskatzen badu.

Dena den, Errekurtso-Batzordeak, lehenengo interesatuari entzun, eta erre- kurtsoa jaso ondoren 30 eguneko epea izango du erabakia hartzeko, eta hau idatziz jakinaraziko zaio.

#### **10. ARTIKULUA. Eskubide eta betebeharrak sozialen hasiera.**

BAT.- Onarpen-akordioa hartzen den egunetik hasiko dira eskubide eta betebeharrak sozialak eragina izaten.

Akordioa aurkatu egiten bada, indarrik gabe geldituko da Errekurtso-Batzordeak erabaki arte.

BI.- Lan-bazkide izateko daudenak, probaldian daudenean, lan-bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, 6-Bi-e artikuluan jasota dauden berezitasunekin.

#### **11. ARTIKULUA. Bazkideen betebeharrak.**

Bazkideek honetara behartuta daude:

- a) Batzar Nagusietara eta, deitzen bazaie, beste organoetara joatera.
- b) Karguak onartzera, horietarako aukeratzen badituzte, eta ez onartzeko bidezko arrazoiak dituztenean salbu.

c) Kooperatibaren xede sozial diren ekintzetan parte hartzera. Honetarako, Kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat parte hartzeko modulu edo gutxienezko arau hauek ezarri dira:

- Bazkide erabiltzaileak: euren seme-alabak edo tutoretzapekoak ematen diren ikasketa zikloetan Kooperatibara bidali edo eskatutako zerbitzuak erabili. Ezarriko diren aldizkako kuota eta ekarpenak ordaindu.

- Iraupen mugagabeko lan-bazkideak: Kooperatibarako egindako lanak erabateko arduraldia izatea. Betebehar honetatik libre izateko, behar den neurrian, bidezko arrazoiak daudenean salbu. Orduan Kontseilu Errektoreak era- bakiko du.

- Iraupen zehatzeko loturadun lan-bazkideak: erabateko arduraldia edo zatikoa, Kooperatibarekin sinatutako kontratuaren arabera. Betebehar honetatik libre izateko, behar den neurrian, bidezko arrazoiak daudenean salbu. Orduan Kontseilu Errektoreak erabakiko du.

- Bazkide laguntzaileak eta bazkide ez-aktiboak: Kooperatibaren esanetara egon honen xede soziala hobetu eta garatzeko egin beharreko ekintzak burutzeko eta esku hartzeko.

d) Kooperatibak garatzen duen xede sozialarekin lehian egon litekeen ekintzarik ez egitera, ezta egiten duenari lagundu ere, Kontseilu Errektoreak bera- riaz baimentzen ez badio behintzat.

e) Kooperatibak burutzen dituen ekintzak eta datuak isilik gordetzera, hauek jakitera emateak kalteak ekartzen badizkie Kooperatibaren interesei

f) Kapital sozialari ekarpenak egitera aurreikusitako baldintzetan, eta aldizko kuotak ezarritako epeetan ordaintzera

g) Galeren egozketa beren gain hartzera, Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoan.

h) Bazkide erabiltzaileak euren seme-alaben edo tutoretzapekoen arduradunek deitutako bileretara, seme-alabek edo tutoretzapekoek Kooperatiban burutzen dituzten ikasketetan nola doazen eta zer egiten duten azaltzeko dei-

tutako bileretara joatera behartuta daude. Baita kooperatibak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk jasotzen dituztenak deitutako bileretara ere.

Legezko arauen eta Estatutu hauen ondoriozko izan litezkeenak betetzera, baita Kooperatibako organoek balioz onartutako erabakien ondorioko beste guztietara ere.

## 12. ARTIKULUA. Bazkideen eskubideak.

BAT.- Bazkideek honetarako eskubidea dute:

a) Kooperatibako organo-karguetarako aukeratu eta aukeratuak izateko.

b) Batzar Nagusietan eta beraiek osatzen dituzten beste organo guztietan akordioak hartzerakoan, hitz eta botoarekin esku-hartzeko.

c) Kooperatibako ekintza guztietan esku hartzeko, bazterketarik gabe.

d) Euren eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak bete ahal izateko informazioa jasotzeko. Hori guztia ondorengo artikuluan aurreikusitakoaren kalte- tan gabe.

e) Kapital sozialera egindako ekarpenak itzultzeko eta eguneratzeko eskatzekoa, hala dagokionean, baita horregatik interesak jasotzekoa ere, erabakitako baldintzetan.

f) Kooperatiba-itzulkina, hala dagokionean.

g) Bazkide erabiltzaileek eskubidea dute euren seme-alaba edo tutoretzapekoen bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko, Kooperatibak horretarako izendatutako arduradunarengandik. Horretarako, aurrez adostutako bilera pertsonalizatuak k egingo dira. Informazio eta arreta bera eskainiko zaie Kooperatibaren beste zerbitzu batzuk erabiltzen dituztenei ere.

h) Kooperatibaren organo sozialek balioz onartutako erabakiak betearazteko.

i) Lege-arau eta estatutu hauetatik ondoriozta daitezkeen gainerakoak.

BI.- Dena den, Lege eta Estatutuko arauen eta Kooperatibako organoek balioz onartutako akordioen arabera erabiliko dituzte bazkideek euren eskubideak.

### 13. ARTIKULUA. Informazio-eskubidea.

UNO.- Bazkideek informazio-eskubidea erabili ahal izango dute Legean, Estatutu hauetan edo Batzar Nagusiaren akordioetan ezarritakoaren arabera; bazkideen eskubide hau erraztu eta gauzatzeko, egokiak iruditzen zaizkion bideak ezarri ahal izango ditu Batzar Nagusiak.

BI.- Bazkide orok du eskubidea:

a) Kooperatibaren Estatutu Sozialen eta, hala dagokionean, Barne-Araudiaren kopia bat eskatzeko.

b) Kooperatibako Bazkideen Errolda-Liburua eta Batzar Nagusiko Akta-Liburua aztertzeke; baita, aurrez eskari motibatua egiten badu, Batzar Nagusiko aktaren eta han hartutako akordioen kopia ziurtatua, eta bazkide Errolda-Liburuan izen emandakoen ziurtagiria jasotzeko ere.

c) Kontseilu Errektoreak harturiko eta bazkideari berari dagozkion akordioen kopia ziurtatua eskatzeko.

d) Kooperatibari buruz bere egoera ekonomikoa zein den galdetzen duen momentutik gehienez ere hilabeteko epean Kontseilu Erretorearen erantzuna jasotzeko.

HIRU.- Bazkide orok eskatu ahal izango die idatziz administratzaileei beharrezko iruditzen zaizkion argibide edo txostenak Kooperatibaren funtziona- mendu edo emaitzen edozein alderdiri buruz; eta idazkia aurkezten duenetik hamabost egun igaro ondoren egiten den lehen Batzar Nagusian jaso beharko du erantzuna.

LAU.- Ekitaldi diru-kontu edo beste edozein proposamen ekonomikori

buruz eztabaidatzen den Batzar Nagusian, bazkideek horiei buruzko esplikazio edo azalpenak eskatu ahal izango dituzte ahoz; honetarako, kontu horien berri ematen duten dokumentuak agerian egon behar dute Kooperatibaren egoitza sozialean, bazkideek deialdi-epean aztertu ahal izan ditzan.

Bazkideek eskubidea izango dute, deialdi-epe horretan, Kooperatibaren egoitza sozialean Kontseilu Errektorearen txostena, eta hala dagokionean, kanpoko kontu-ikuskaritzaren txostena.

Epe horretan, eta Batzarra egin baino bost egun lehenago gutxienez, bazkideek idatziz eskatu ahal izango dituzte aipaturiko dokumentazio ekonomiko- ari buruzko azalpen eta argibideak, erantzuna Batzarrean bertan jaso ahal izateko.

BAT- Hemengo BAT atalean ezarritako eskubidearen kaltetan gabe, boto guztien %10 gutxienez biltzen duten bazkideek edozein momentutan eskatu ahal izango dute, idatziz, beharrezkoa iruditzen zaien informazioa. Kontseilu Errektoreak, idatziz, hogeira hamar laneguneko epearen barruan eman beharko dute eskaturikok informazioa.

SEI.- Edonola ere, Kontseilu Errektoreak bazkideei, edo hauen ordezkari diren organoei, Kooperatibako aldagai sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko diete, hiru hilero gutxienez, eta egokiena iruditzen zaien bidez baliatuz.

ZAZPI.- Eskaria ausarkeriaz edo oztopatzeke asmoz egina denean bakarrik ukatu ahal izango dute informazioa Kontseilu Errektorekoek; baita informazio hori emateak Kooperatibaren bidezko interesak arrisku larrian jartzen dituztenean ere. Edonola ere, salbuespen honek ez du balio izango ukaturiko informa- zioa Batzar Nagusian bertan eman beharrezkoa denean eta informazio hori pertsonalki eta ordezkatuta dauden boto guztien erdiak baino gehiagok eskatzen suenean; eta, beste kasuetan, ezta informazioa eskatzen dutenek egindako erre- kurtsoaren ondorioz Batzarrak informazio hori ematea erabakitzen badu ere.

Eskatzaileek Kontseilu Errektorearen ezezkoa aurkaratu ahal izango dute, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 25. eta 51. artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.



Oro har, honako hauek bazkideen informazio-eskubidea errespetatzeko berme gisa ezartzen dira, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera:

- a) Bazkideen informaziorako eskubidea bermatzeko organo eskuduna Kontseilu Errektorea da.
- b) Informazio-eskaera oro behar bezala identifikatutako bazkideek izenpetu beharko dute, eskaeraren zergatiak arrazoituta azalduta.
- c) Kontseilu Errektoreak Estatutuetako artikuluko honetako Zazpigarren paragrafoan aurreikusitako kasuetan bakarrik ukatu ahal izango du informazioa, eta aipatutako atalean jasotako salbuespenarekin.
- d) Informazio-eskaera gutxienez bazkideen % 20k sinatzen badu, Kontseilu Errektorearen ezezko erabakiak bi hereneko gehiengo kualifikatua eskatuko du.
- e) Kontseilu Errektoreak informazioa ukatzeko hartutako erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Errekurtsio Batzordearen aurrean, erabakia jakinarazi eta hogeitaz eguneko epean.
- f) Errekurtsioa Errekurtsio Batzordeak ebatziko du hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, errekurtsogileari edo, hala badagokio, gehienez ere errekurtsogileen arteko bost pertsonaren ordezkariari entzun ondoren
- g) Bazkideak lortutako informazioaren erabilerak muga hauek baino ez ditu izango: abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legea, aplikazio orokorreko beste arau batzuk eta Estatutu hauek.
- h) Kooperatibak bazkideekiko harremanetan erabiltzen dituen formatu, programa edo lengoia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- i) Eskatutako informazioa formatu elektronikoan bidali ahal izango da.
- j) Informazioa, eskatzeko erabili den Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da, bai eta eskatzaileak berariaz hala eskatzen badu ere. - Zehazki, Zaintza Batzordeari eta egiten den Batzar Nagusiari berehala jakinarazi beharko zaio kooperatibak egin duen eta erakundea desegitearekin, kooperatibaren hezkuntza-jarduera uztearekin, hezkuntzaren titulartasuna edo/eta kooperatibaren ondarea erakunde publiko edo pribatuei lagatzearekin erlazionatuta egon daitekeen edozein kudeaketa edo prozedura.

#### 14. ARTIKULUA. Bazkidearen borondatezko baja.

BAT.- Bazkide oro nahi duenean irten ahal izango da Kooperatibatik bere borondatez. Idatziz ohartarazi behar dio Kontseilu Errektoreari 3 hilabeteko aurrerapenez pertsona fisikoa bada, eta urtebetekoa pertsona juridikoa bada.

BI.- Aurre-abisurako epea ez betetzea, edota aldi batean jarraitzeko berariaz eskatutakoan epe hori ez betetzea, justifikatu gabeko bajatzat hartuko dira, Kooperatibako Kontseilu Errektoreak, kasuan kasuko zirkunstantziak kontuan izanda, bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat; edonola ere, eska dakioke bazkideari, bere obligazioaren arabera, Kooperatibako egintzak eta zerbitzuak betetzea, baita dagokion kalte-ordaina egitea ere.

HIRU.- Bazkide izateari uzteak berekin dakar bazkideak bere jarduerari (lan-bazkideak) eta zerbitzuak emateri uztea (bazkide erabiltzaileak), baita laguntzeari ere (bazkide laguntzaileak).

## **15. ARTIKULUA. Bazkidearen derrigorrezko baja.**

BAT.- Bazkideek derrigorrezko baja kausatzeko arrazoi izango da, Euskadiko Kooperatiben Legearen edo Estatutu hauek ezarritakoaren arabera bazkide izateko baldintzak betetzeari uztea.

BI.- Derrigorrezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, aurrez dagokionari entzun ondoren, ofizioz, edo beste edozein bazkidek edota inplikaturik hala eskatuta.

HIRU.- Kontseilu Errektorearen erabakia, Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten den momentutik edota errekurtsioa egiteko epea igaro ondoren izango da bete beharrekoa.

LAU.- Derrigorrezko baja justifikatuz hartuko da bazkide izateko baldintzak betetzeari uztea, ez bada behintzat bere obligazioak ez betetzeko edota derrigorrezko baja horrekin bidegabeko onura ateratzeko borondate hut- saren ondorio.

BOST.- Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiaren kalifikazioarekin edo ondorioekin ados ez dagoen bazkideak, bai baja borondatezkoa denean, bai derrigorrezkoa denean, helegitea jarri ahal izango du, eta estatutu hauetako 21. Artikuluko Bi eta Lau ataletan xedatutakoa ezarriko zaio.

## **16. ARTIKULUA. Bazkide ez-aktiboak.**

Gutxienez sei urteko antzintasuna eta, bidezko arrazoiren batengatik, Kooperatiban lan egiteari behin betiko uzten diotenen bazkide izaten jarraitu ahal izango dute ondorengo arauak betez:

a) Lan-bajarekin batera Kontseilu Errektoreari eskatu egin beharko diote, eta

hau izango da erabakiko duena. Erabakia Batzar Nagusiaren aurrean aurkaratu daiteke.

b) Ezin izango dira **Kontseilu Errektoreko edo sozietateko bestelako edozein elkargo**-taldeko kide izan.

c) Kooperatibaren bilakaerari buruzko informazioa hartzeko eskubidea izango dute eta Batzar Nagusian parte hartzekoa ere bai; hala ere, bazkide hauen botoak guztira ezin izango dira lan-bazkideen boto guztien hamarrena baino handiagoa izan.

d) Ekonomikoak ez diren eskubide eta betebeharrak egikaritzea, aktiboan dauden bazkideei aplikaturiko irizpide bertsuekin egingo da.

#### 17. ARTIKULUA. Bazkide laguntzaileak. Eskubideak eta betebeharrak.


BAT.- Bazkide laguntzaile izango dira Kooperatibaren xede soziala lortzen lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak, kooperatiba-arloan edo beste edozeinetan.

BI.- Bazkide laguntzaileak aldi baterako izan daitezkeenak- onartzeko erabakia Kontseilu Errektoreak hartuko du.

HIRU.- Kontseilu Errektoreak hartutako erabakietan onartutako bazkide hauen laguntza-baldintzak zehaztuko dira. Hala ere, 11 eta 12. artikuluetan aipatutako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, beti ere zehatzekin eta adostutako elkarlanarekin bateragarriak badira.

LAU.- Bazkide laguntzaileek Batzar Nagusian izango dituzten botoak ezingo dira boto sozialen %33 baino gehiago izan.

BOST.- Ezingo dira ez Kontseilu Errektoreko, ez beste ezin organo sozialetako partaide izan.



#### 18. ARTIKULUA. Bazkideen hutsegite-motak.

BAT.- Bazkideen hutsegite sozialak, beren garrantzi edo asmoaren arabera, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

BI.- Hutsegite sozial oso larriak izango dira:

a) Lehia eragiketak; kapitalari egin beharreko ekarpenetan iruzur egitea; datu garrantzitsuak gordetzea, baita Kontseilu Errektoreko partaide eta elkartearen ordezkariak nabarmen gutxiestea, horrekin Kooperatibaren interes material edo ospe sozialari kalte egin badieziaiekete.

b) Kooperatibaren bere bazkideekiko edo besterekiko harremanetarako garrantzizkoak diren dokumentu, sinadura, zigilu, maraka edo antzeko datuak faltsifikatzea.

c) Kooperatibaren ezkutuko dokumentuen isilpekotasuna haustea edo hauek erakustea, ondorioz Kooperatibaren interesen aurka larri eragiten denean.

d) Kontseilu Errektorearen egitekoak, Errekurtso-Batzordearenak, Zaintza-Batzordearenak edo haietako edozein partaideren egitekoak nork beretzat hartzea.

e) Bazkide izaeraz baliatuta, espekulatzea edo legearen aurkako ekintzak burutzea.

f) Estatutu sozial hauetako 11. artikuluan ezarritako obligazioak behin eta berriro ez betetzea. Baita Kooperatibaren ondare edo ospe sozialari, eta, orokorrean, Kooperatibaren oinarri sozialari kalte egin diezaieketen egintzak edo hitzak behin eta berriro zertzea ere.

g) Organo sozialen bileretan edo xede soziala garatzeko lan, ekintza edo eragiketa



zehatzetan Kooperatibako gainerako bazkideei edo langileei, baleude, hitzezko edo egintzazko tratu txarrak.

h) Hutsegite larrietan berrerrortzea, urtebeteko epean.

HIRU.- Hutsegite larriak izango dira:

a) Behar bezala deitutako Batzar Nagusietara ez joatea bidezko arrazoirik gabe, eta hutsegite arinak direla-eta bi aldiz zigortuta badago. Batzar Nagusietara ez joateagatik azken hiru urtetan.

b) Kargu sozialetarako aukeratuak izan ondoren, kargu horiek arretaz ez betetzea.

c) Hutsegite arinetan berrerrortzea, urtebeteko epean.

LAU.- Hutsegite arinak dira:

a) Behar bezala deitutako Batzar Nagusietara ez joatea bidezko arrazoirik gabe.

b) Ohiko egoitza edo egoitza soziala aldatu eta Kooperatibako Idazkariari ez jakinaraztea, hori egin ondorengo bi hilabeteko epean.

c) Ez-jakite desenkusagatik Estatutu eta Araudietako aginduak eta funtzionamendu-arauak ez betetzea, behin gutxienez.

## 19. ARTIKULUA. Hutsegite sozialengatiko zehapenak.

BAT.- Hutsegite arinengatik: Idatzizko ohartarazpena edota hasieran indarrean zegoen derrigorrezko ekarpenaren %10eko diru zehapena.

BI.- Hutsegite larriengatik: Bat ataleko guztiak; hasieran indarrean zegoen derrigorrezko ekarpenaren %20 arteko diru zehapena. Kooperatibako administratzaile edo edozein organo sozialetarako aukeratua izateko desgaitza.

HIRU.- Hutsegite oso larriengatik: Bat eta Bi ataletako guztiak; hasieran indarrean zegoen derrigorrezko ekarpenaren %20 arteko diru zehapena; kanporatzea.

## 20. ARTIKULUA. Zehapen-prozedura.

BAT.- Bazkideak hutsegite sozialengatik zehatzeko dagokion espedientea izapidetuko da, beti ere, ondorengo arauak jarraituz:

a) Hutsegite arinak direnean, Kontseilu Errektorea hutsegite arintzat har daitezkeen egintzen edo ez-egintzen berri izaten duen unean, bere partaideen artetik bat izendatuko du Izapidegile. Honek erruztatutako bazkidearen aurka-ko kargu plegua aurkeztuko du, hala badagokio, eta idatziz jakinarazi beharko dio erruztatuari hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta horregatik proposatutako zehapena. Era berean, erruztatuak ere azal dezake deskargu plegua; horretarako izapidegilearen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar eguneko epea izango du, eta Kontseilu errektorearen aurrean idatziz aurkeztu beharko du. Une horretatik, Kontseilu Errektoreak gehienez hilabeteko epea izango du hutsegitearen kalifikazioa egin eta behin betiko zehapena ezartze-ko, baina beti eta derrigorrez, lehenengo interesatuari entzun beharko dio, eta ondoren jakinaraziko dio hutsegitearen kalifikazioa eta behin betiko zehapena Kooperatiba barruko azken bidean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 52. artikuluan ezarritako auzi-bidezko tramitean aurkaratzeko posibilitatearen kaltetan gabe. Hau hala gertatuko da, interesatua Kontseilu Errektoreak alde aurretiko entzute gira deitu eta etorriko ez balitz salbu.

b) Hutsegiteak larriak edo oso larriak direnean, jarraitu beharreko prozedura hutsegite arinetarako aurreikusitakoa bezalakoa da, baina Kontseilu Errektorearen zehapen akordioari errekurtsioa jarri ahal zaio eta ez du Kooperatibaren azken bideak agortzen. Bazkideak Kontseilu Errektorearen zehapen akordioari errekurtsioa jarri ahal izango dio Errekurtsio-Batzordearen aurrean, zehapena jakinarazi ondorengo hogeita hamar eguneko epean. Errekurtsio-Batzordeak interesatuari entzun ondoren, honek hala ez badu nahi salbu, Kontseilu Errektorearen kalifikazio edota zehapena baieztatu edo aldatuko du, eta horretarako errekurtsioa jarri zuenetik kontaktzen hasita hogeita hamar eguneko epea izango du. Errekurtsio-Batzordearen akordioak

Kooperatiba barruko bideak agortzen ditu, bazkideak Errekurtso-Batzordearen erabakiaren aurka Euskadiko Kooperatiben Legearen 41. artikuluan ezarritako auzi-bidezko tramitean aurkaratzeko posibilitatearen kaltetan gabe.

BI.- Arau-hauste arinek hilabetera preskribituko dute, larriek bi hilabetera, eta oso larriek hilabetera.

Preskripzio epea Kontseilu Errektoreak arau-haustearen berri izaten duten egunetik hasiko da zenbatzen. Arau-hauste jarraituen edo iraunkorren kasuan, jokabide arau-hauslea amaitu zenetik hasiko da epea zenbatzen.

Preskripzioa eten egingo da zehapen-prozedura bat hasten bada, interesduna jakitun dela, eta preskripzio-epea berriro hasiko da ustez erantzulea den pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik zehapen-espeditentea lau hilabete baino gehiagoz geldirik badago, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe.

HIRU.- Zehapen guztiak betearazleak izango dira hauek: bazkideak errekurtsua jartzeko duen epea amaitu, eta eskubide hori gauzatzeko utziko balu, hurrengo egunetik; edo, bestela, epai apelaezina hartu eta hurrengo egunetik.

## 21. ARTIKULUA. Kanporatzea.

BAT.- Bazkide bat kanporatzeko erabakia Kontseilu Errektoreak bakarrik erabaki ahal izango du estatutu hauen arabera hutsegite oso larriagatik, honetarako zabaldutako espeditentearen ondorioz era doakionari entzun ondoren.

BI.- Bazkideak kanporatze erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahal izango du Errekurtso-Batzordearen aurrean, hura jakinarazten zaionetik hogeita hamar eguneko epean.

Errekurtso-Batzordearen aurrean erabakiko da errekurtsua doakionari entzun ondoren eta aurkezten denetik hiru hilabeteko epean, gehienez jota. Epe hau amaituta ez bada ezer erabakitzen, ez jakinarazten, onartutzat hartuko errekurtsua.

HIRU.- Kanporatzeko erabakia Errekurtso-Batzordearen berrespena jakinarazten den momentutik izango da betearazlea, edota errekurtsua egiteko epea igarotzen denetik aurrera.

Hala ere, Kooperatibarako egiten duen lana egiteari utzi beharko dio Kontseilu Errektoreak kanporatzea erabakitzen duen egunetik. Lan-aurrerakina jasotzeko behin-behineko eskubidea gordeko du lanean ariko balitz bezala.

LAU.- Kanporatze erabakia Errekurtso-Batzordeak berretsi egin badu, aurkapena ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 41. artikuluan arauturiko prozesu-bide- tik egin ahal izango da.

BOST.- Era berean, lan-bazkideak Barne Araudia aurreikusitako hutsegite sozio-laboral oso larriengatik kanporatuak izan ahalko dira. Lan-bazkideak, behin barne baliabideak agortuz gero, Gizarte Jurisdikzioaren aurrean jarri ahal izango du errekurtsua, eta han kanporatze erabakia jakinaraztearen ondorio kaleratze-gutunarekin parekagarria da.

## 22. ARTIKULUA. Barne-antolamendu funtzionalaren oinarriko elementuak.

BAT.- Lanaren antolamenduari eta ordainketari dagokionez, hauek dira:

- a) Zuzendari gerentearen lana da, Kontseilu Errektoreak emandako eskuordetzaren arabera, lanaren antolaketa eta diziplina ezartzea eta betetzea.
- b) Lan-bazkideek lan-aurrerakinak jasoko dituzte betetzen duten lanpostuaren arabera eta lanari ateratako eraginkortasuna edo etekinaren arabera.
- c) Lan-bazkideek hilero jasoko dituzte lan-aurrerakinak, eta inola era ezingo dira hileko konputuan lanbidearteko soldata minimoa baino txikiagoa izan.
- d) Lan-aurrerakinak Kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura jasotako aldizkako ordainketak dira, beraz, ez da soldata. Ondorioz, zenbatekoa izango den emaitza haien arabera izango da, azken finean.
- e) Urtean egin beharreko lanorduak, lan-aurrerakinak eta 11/2019 Legearen 105-2. artikuluan aipatutako beste atal guztiak, Kontseilu errektoreak zehaztuko ditu.

BI.- Pertsona fisikoei dagokien fiskalitatea lan-bazkideen kontura izango da, eta inola ere ez Kooperatibak subrogatua.

HIRU.- Lan-araubideari dagozkion gaietan, lan-bazkideak Barne-Araudiak arautuko ditu, baina estatutu hauek ezarritakoa errespetatuko da, beti ere.

LAU.- Behin betiko lan-bazkide nahiz probaldikoen Gizarte Segurantzako estaldurari dagokionez, Gizarte Segurantzaren Erregimen orokorra aukeratu du Kooperatibak.

BOST.- Lan-bazkideen ordainketak eta besterentzat lan egiten duten langileen ordainketak ezin izango dira izan, sektoreko langileen hitzarmen kolektiboak lan eta kategoria profesional horretarako ezarritako ordainketen ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoak.

## 4 Kapitulu KOOPERATIBAREN ORDEZKAPENA ETA KUDEAKETA

### 23. ARTIKULUA. Organo sozialak.

BAT.- Kooperatibak ondorengo organo sozialak izango ditu, eta bakoitza bera bakarrik izango da kompetentzien titularra:

- Batzar Nagusia.
- Kontseilu Errektorea.
- Zaintza-Batzordea
- Errekurtso- Batzordea

BI.- Kooperatibak bere eraginkortasun eta garapena beharrezko izan ditzakeen beste organo sortu ahal izango ditu, kasu bakoitzean erabakitako ahalmenekin. Hala ere, derrigorrez behar ditu organo batzuk Legeak hala esleitzen dituenak.

Hau da, Kooperatibak, Administrazio Publikoarekin dituen hezkuntza kontzertuen erregimenean ezartzen diren baldintzak bete ahal izateko beharrezko- ak diren organoak izango ditu.

### 24. ARTIKULUA. Batzar Nagusia.

BAT.- Batzar Nagusia, bazkideek osatua, borondate soziala adierazten duen organo gorena da, indarrean dagoen legeriak eta estatutu hauek egozten dizkieten gai guztietan.

Batzar Nagusiaren erabakiek bazkide guztiak behartzen dituzte.

BI.- Batzar Nagusiari soilik dagokio ondorengo erabakiak hartzea:

- a) Kontseilu Errektorekoak, Zaintza-Batzordekoak, Errekurtso-Batzordekoak

eta likidatzaileak izendatu eta kargugabetzea isilpeko botoz.

- b) Kontu-auditoreak izendatu eta, bidezko kausaz, kargugabetzea.
  - c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinak banatzea edo galerak egozte.
  - d) Derrigorrezko ekarpen berriak erabakitzea; kapital-ekarpenek sortuko dituzten interesak finkatzea, baita sarrerako edo aldizkako kuotak ere.
  - e) Estatutua Sozialak aldatzea.
  - f) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak eratzea.
  - g) Kooperatiba batu, zatitu eta desagertzea erabakitzea.
  - h) Kooperatibaren ekonomia, antolamendu edo funtzio-egituran funtsezko aldaketak onartzea, besteak beste, hauek:
    - Kooperatiba irakaskuntza sare publikoan sartzea.
    - Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.
    - Xede soziala aldatzea, aldaketak Kooperatibaren sorrerako egintza eta xedeak ez baditu betetzen edo errespetatzen.
    - Kooperatiba mota aldatzea.
- Indarrean dagoen legetik edo Estatutu hauetatik eratorritako beste edozein.
- i) Kooperatibaren Barne-Araudia onartu eta aldatzea.
  - j) Legez hala ezarritako beste akordio guztiak.

HIRU.- Batzar Nagusiak Kooperatibarentzat interesgarri diren gaiak aztertu ahal izango ditu; baina betebeharreko erabakiak hartu, beste organo sozialen baten eskuduntza eskusiboak ez diren gaietan bakarrik hartu ahal izango ditu.

LAU.- Artikulu honen edo lege-arauen arabera Batzar Nagusiari dagozkion

eskuduntzak eskuordezinak dira. Hala ere, kooperatibak bateratze prozesurako aurreikusitako salbuespen izango da, artikulu honetako Bi puntuko f) atalean aipatu bezala.

## 25. ARTIKULUA. Batzar Nagusirako deialdia.

BAT.- Batzar Nagusira, Ohikoa zein Berezia izan daitekeena, Kontseilu Errektoreak dei egingo du.

BI.- Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi soziala itxi eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharko da. Epe hori igarota Batzarra egiten ez bada, edozein bazkidek eskatu ahal izango dio batzarra egiteko Kontseilu Errektoreari, notario bidez edo beste bide frogagarri baten bidez. Azken horrek ez badu hamabost eguneko epean deialdia egiten, errekerimendua jasotzen duenetik zenbatzen hasita, bazkideak sozietatearen egoitzako Merkataritza arloko Epaitegiari eskatu ahal izango dio, eta hark Batzarrerako deialdia egin beharko du, Batzarra nork zuzenduko duen izendatuz. Batzar Nagusi horrek, epez kanpo deituta ere, ez du ohiko izaera galduko.

HIRU.- Batzar Nagusi Berezira Kontseilu Errektoreak dei egingo du, edozein momentutan, Zaintza-Batzordearen eskariz edota boto guztien ehuneko hogeit gutxienez ordezkatzeko duen bazkide kopuruaren eskariz; honetarako errekerimendu egin behar zaio Kontseilu Errektoreari eztabaidatu nahi diren gai eta proposamenekin gai-zerrenda bidaliz. Eskaria jaso eta ondorengo hogeita hamar egunetan ez bada Batzar Nagusirako deia egiten, deialdi judiziala eska daiteke, aurreko puntuan aurreikusitakoari jarraituz.

LAU.- Deialdia egin ondorengo bost egunetan, boto guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkatzeko duen bazkideek idazki bidez gai-zerrendan gai bat edo batzuk sartzea eska diezaiokete Kontseilu Errektoreari. Kontseilu Errektoreak sartu egin beharko ditu gai horiek eta zerrenda berria argitaratu, legez eskatzen den publizitateaz eta Batzar Nagusia egin baino lau egun lehenago gutxienez; Batzar Nagusia ezin izango da inola ere atzeratu.

BOST.- Batzar Nagusia egoitza sozialean eta Kooperatibak bere jarduna burutzen dueneko beste zentro guztietan nabarmen ezarritako iragarki bidez

deituko da.

Batzar nagusirako deialdia sozietatearen webgunean argitaratutako iragarki baten bidez ere egingo da, behin batzar orokorrak webgune hori sortzea erabaki eta sorrera horren erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako gunean jaso ondoren.

SEI.- Deialdia, Batzarra egin baino gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei lehenago plazaratuko da.

ZAZPI.- Deialdian, gutxienez, Batzarraren lekua, ordua eta eguna adieraziko dira, lehen eta bigarren deialdian; bi horien artean, ordu erdiko tarte gutxienez izan behar da. Gainera, gai-zerrendaren berri emango da behar besteko xehetasunez.

Kooperatiba batzarra lehen deialdian edo bigarren deialdian egiten saiatuko da; hala ere, kooperatibak lehen eta bigarren deialdietarako aurreikusitako legezko quorumera ezin dela iritsi aurreikusten badu, hirugarren deialdi bat egin ahal izango du. Bigarren deialditik ordu erdi igaro beharko da deialdi hori egin arte.

ZORTZI.- Aurreko ataletan ezarritakoa gorabehera, bilera baliozkoa izango da eta ez da deirik beharko bertan pertsonalki edota ordezkaturako bazkide guztiak baldin badaude, eta aho batez erabakitzen badute Batzar Nagusia unibertsal bihurtzea; guzti-guztiek sinatu beharko dituzte gai-zerrenda eta bildu- takoen zerrenda, eta gero ez da beharrezkoa izango bazkide guztiak bertan jarraitzea.

## 26. ARTIKULUA. Batzar Nagusiaren funtzionamendua.

BAT.- Batzar Nagusia, unibertsala ez bada behintzat, egoitza dagoeneko herrian egingo da, edota Kontseilu Errektoreak izendaturiko beste edozein lekutan, honetarako bidezko arrazoirik baldin badago, behintzat.

BI.- Batzar Nagusia lehen deialdian eratuko da balioz, bertan pertsonalki edo ordezkaturako botoen gehiengoa baldin badago; eta bigarren deialdian, pertsonalki edo ordezkaturako bazkide guztien botoen % 10 gutxienez baldin badau- de, edo 100 boto, eta hirugarren deialdian, bertaratutako edo ordezkaturako botoen kopurua edozein dela ere.

Batzar Nagusira joateko eskubidea, deia egitea erabaki zen momentuan bazkide ziren guztiek izango dute.

Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, bazkideek ere parte hartu ahal izango dute, eta Batzar Nagusian erabakiak baliozkotasunez hartzeko borondatea adierazi, bideokonferentzia bidez edo irudiaren eta soinuaren bi noranzkoko eta aldi bereko komunikazioa ahalbidetzeko eta ikusizko, entzunezko eta ahozko elkarreragina ahalbidetzeko ezarritako antzeko beste sistema baten bidez. Kasu horietan, Batzar Nagusiko Idazkariak beren-beregi jasoko du aktan modu horretan parte hartu duten bazkideen nortasuna eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak baliozkotasunez hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

**HIRU.-** Bazkideek, idatziz, beste bazkide batzuk ordezkatu ahal izango dituzte, Batzar Nagusi bakoitzerako bereziki.

Bazkide erabiltzaileek Kooperatiba honetako zerbitzuen erabiltzaile adingabearen beste guraso, ordezkari edo tutore bat ere ordezkatu ahal izango dute, betiere lotura hori egiaztatzen badute eta Kooperatibaren dokumentazio sozialean hala jasota badago.

Nolanahi ere, ordezkaritza idatziz egiaztatu beharko da, bazkidearen baimenarekin eta sinadurarekin, Batzar Nagusi bakoitzerako, eta ordezkariak berariaz onartu eta sinatu beharko du.

Batzarra unibertsala denean, aurreikusitako gai-zerrenda sartu behar da ordezkartzaren egiaztagirian.

Bazkide batek ezin du, bereaz gain, beste biren ordezkaritza baino gehiago izan. Ordezkaritza baliogabetu egin daiteke; hala, bazkide bera Batzar Nagusian agertzeak baliogabetu egingo du ordezkaritza.

LAU.- Batzar Nagusiko buru Kontseilu Errektoreko Lehendakaria izango da; hau bertan ez dagoenean, Lehendakari ordeza; eta hau ere falta bada, Batzarrak berak aukeratutako bazkidea.

Lehendakariari ondorengo dagokio: eztabaidak zuzentzea, gai-zerrendarekiko desbiderapenik gerta ez dadin edo bertan sartu gabeko gaiei buruz erabakirik har ez dadin arduratzea legeak berak onartzen dituenak izan ezik-, Batzarraren ordenari eustea eta legezko formalitateak bete daitezen zaintzea.

Idazkari lanak Kontseilu Errektoreko Idazkariak egingo ditu, eta hau falta bada, Batzarrak aukeratutako ordezkoak.

BOST.- Baliogabeak izango dira gai-zerrendan sartu gabeko gaiei buruzko erabakiak, legeak horiek hartzea berariaz onartzen duenean izan ezik.

SEI.- Kontseilu Errektorekoek joan egin behar dute Batzar Nagusietara, eta hala nahi izanez gero, eta beharrezkoa balitz, bazkide ez diren pertsona kualifikatuak ere bai, gai sozialak bide onetik joan daitezen interesa dutenak; dena den, Kontseilu errektoreak deia egin gonbidatu behar ditu.

**ZAZPI.-** Idazkariak bilkuraren akta idatziko du. Bertan hauek adieraziko dira: bileraren lekua, data eta formatua, deialdiaren data eta modua, deialdiaren testu osoa, bertaratutako bazkide kopurua, zuzenean edo ordezkaritza bidez egiten badute, batzarrera sartzeko sistema, hala badagokio, eta borondatea adierazteko erabilitako nortasuna eta bitartekoa, lehenengo edo bigarren deialdia bada, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jasotzea eskatu diren esku-hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza, eta aktaren onarpena bilera amaitzean.

Bertaratutakoen zerrenda akta hasieran idatziko da edo bestela hari erantsiko zaio Idazkariak sinadura eta lehendakariaren onespina edukiko duen eranskin baten bidez.

Akta Batzarrak berak onets dezake bilera bukaeran, edota, bestela, ondorengo hamabost eguneko epean Lehendakariak eta Batzarrean aukeraturiko bi bazkidek onets dezakete; hauek sinatuko dute akta Idazkariarekin batera.

Batzarrera joandako edonork du eskubidea aktaren edo erabakien testu osoa ziurtaturik eskatzeko; ziurtagiri hauek luzatuko dituen momentu horretan Idazkari dena izango da, Lehendakariak ontzat emanda.

ZORTZI.- Erabakiak, onartzen diren momentutik hasiko dira eragina izaten.

BEDERATZI.- Inskribatu beharreko erabakiak, akta onetsi ondorengo hogeita hamar egunen barruan aurkeztu behar dira Kooperatiba-Erroldan.

## 27. ARTIKULUA. Boto eskubidea.

BAT.- Bazkide bakoitzak boto bat izango du.

BI.- Bazkideak ezin izango du boto eskubidea gauzatu, ondorengo interes gatazkak badaude:

- a) hartutako erabakiak zuzenean eta berari bakarrik eragiten badio, baldin eta espedientatutako gehiengoaren zati ez bada eta
- b) Kooperatibak gauzatutako erantzukizun-egintza baten subjektu bada.

## 28. ARTIKULUA. Gehiengoak.

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak balioz ematen diren botoen erdia baino gehiagoz onartuko dira. Ez dira zenbatuko ez boto zuriak, ezta abstentzioak ere. Euskadiko Kooperatiben Legeak edo estatutu sozial hauek gehiengo indar- tua ezartzen dute kasu batzuetan; hauek salbuespen izango dira.

BI.- Batzarrean bertan edo ordezkaturik dauden botoen bi hereneko gehien- goa behar da Kooperatiba eraldatu, batu, zatitu, irakaskuntza sare

publikoan sartu eta desegitea erabakitzeko, bertaratutako eta ordezkaturako botoen kopurua kooperatibaren boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa bada.

## 29. ARTIKULUA. Batzar Nagusiko erabakiak aurkatzea.

**BAT.** – Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira, baldin eta legearen edo estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte, bazkide baten edo gehiagoren edo bazkide ez diren hirugarrenen mesedetan.

**BI.** – Ez da bidezkoa izango ondorioz gabe utzitako edo balioz beste batek ordeztutako erabaki bat aurkaratzea.

**HIRU.** – Aurkaratzeko akzioa bazkide guztiek, administratzaileek, zaintza-batzordeko kideek eta interes legitimoa duen bazkidea ez den beste edozein pertsonak gauzatu ahal izango dute, eta urtebeteko epean iraungiko da, zergatiarengatik edo edukiarengatik ordena publikoaren aurkakoak diren erabakiak izan ezik.

**LAU.** – Artikulu honen aurreko paragrafoan aurreikusitako aurkaratzeko akzioa egikaritzeko iraungitze-epea erabakia hartzen den egunetik hasiko da zenbatzen, edo, inskribatu ahal bada, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik.

**BOST.** – Oro har, aurkaratzeko prozedura Kapital Sozietateei buruzko Legearen ezarritako arauetara egokituko da, salbuespen batekin: demanda-idazkian aurkaratutako akordioa eteteko eskarian eskatzailea Zaintza Batzordea edo gutxienez botoen % 10 ordezkatzeko duten bazkideak izatea.

**SEI.** – Aurkaratzeko akzioa baiesten duen epaiak ondorioak izango ditu bazkide guztien aurrean, baina ez die eragingo inpugnatutako erabakiaren ondorioz bazkide ez diren fede oneko hirugarrenek eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak horren ezereztea ekarriko du.

## 30. ARTIKULUA. Kontseilu Errektorea. Izaera eta aginpidea.

BAT.- Organo kolegiatu den Kontseilu Errektoreari, eta berari bakarrik, dagokio Kooperatibaren gestioa eta ordezkaritza, eta, gainera, berariaz legez edo Estatutu hauen bitartez beste organo sozial bati egotzita ez dauden aginpide guztiak ere, egikaritzeko ditu.

BI.- Honako eskumenak dira Kontseilu Errektorearen aginpidekoak:

a) Bazkideen onartzeak eta baxak erabakitzea, Estatutu hauetan aurreikusitakoarekin bat eginez.

b) Kooperatibaren ordezkari izatea, eskuordetzeko gaitasuna duela, edonola- ko ekitaldi eta kontratuetan, eta, bereziki, parte hartzen dueneko erakundeen sozietate-organoetan.

c) Zuzendari-gerentea izendatzea, eta, honek proposatuta, sailtako zuzendariak izendatu, kargutik kendu eta euren eskumenak, betebeharrak eta ordain- sariak zehaztea. Kasua bada, euren kontrako erantzukizun-ekintzak egikaritzea.

d) Bazkide langileen eta bazkide ez direnen ekonomia-baldintzak hitzartzea.

e) Erabakiak hartzea estatutu-eskubide eta betebeharrekin loturiko kontuen gainean, lanaren antolaketaren gainean eta bazkideen lan- eta diziplina-erregimenaren gainean.

f) Kooperatibaren funtzionamendua antolatu, zuzendu, gestionatu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari aurkeztea, jakinaren gainean egon dadin, urteko planak eta epe luzerakoak, Kooperatibaren politika-proposamenak eta estrategia orokorrak, behin Kontseilu Errektoreak onetsita dituen.

g) Bidezkoa dena erabakitzea kontseilarien uko egiteen gainean, hutsik gera- tutako karguen ordezteen gainean, eta, orokorrean, organoaren beraren barne funtzionamendua arautzearen gainean. Gainera, hartutako erabakien, edota beraren aginpidekoak direnen aurka egite ekintzak egikaritzea.

h) Batzar Nagusiari proposatzea Kooperatibaren Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren gainean egoki irizten dituen aldarazpenak.

i) Estatutuaren eta araudiaren aginduak modu egokian ezartzeko, funtzio- araudiak edo Batzarraren erabakietatik eratorritakoak onestea.

j) Xede soziala gauzatzeko komenigarri edo beharrezko diren ekintza eta kontratuak burutzea, bai eta higiezin-ondasunak erosi edo besterenganatzea, errege-eskubideak eratzea -hipotekena barne, eta bereziki errentamendua-, eta estatutu hauek Kooperatibari emandako

ahalmenez egin ditzakeen edonolako negozio eta eragiketak erabakitzea ere.

k) Kooperatibak erabaki ditzakeen kreditu- eta mailegu-eragiketak edo sindura-bermekoak ebaztea, Batzar Nagusiaren ahalmenekoak ez direnean.

l) Erakunde pribatu edota publikoetan abalak ematea, bai eta zuzenbidez onartutako edonolako titulu, zor-publiko, edo balore higigarri eta higiezin erosi, saldu, harpidetu edo gordailutzea, eta egoki irizten duen moduan era- biltzeko ahalmena izango du.

m) Ekarpinak harpidetu eta Bonuak eta Obligazioak jaulkitzeko behar den guztia erabakitzea, Batzar Nagusiak erabakitakoari jarraituz.

n) Erabil daitezkeen fondoan inbertsioa erabakitzea, aurrekontuan eratzea,



gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, eta kasuan-kasuan horiei eman beharreko ahalmenak ematea.

o) Ohiko Batzar Nagusiari urtero Urteko Kontuak aurkeztea, eta soberakin gar- biak banatzeko modua, edo, kasua bada, galeren egozte, proposatzea. Horretaz gain, bazkideen hasierako derrigorrezko ekarpenak, sartzeko kuotak eta aldizkakoak zehaztuko dituzte.

p) Batzar Nagusietarako deiak egitea, bertan sor daitezkeen arazoak konpontzea eta beronen erabakiak betearaztea.

q) Kooperatibaren eskubide edo jarduerak egikaritzeko moduen gainean egoki irizten duena erabakitze ahalmena izango du, auzitegi edo epaimahai ohiko edo berezien aurrean, edo estatuko erakunde, korporazio, buruzagitza edo bulegoetan, lekuko administrazio autonomiko, probintzial edo udalerrikoetan, bai eta ohiko eta ezohiko errekursoak jartzeko garaian ere; horretarako, Kooperatibaren ordezkari eta defendatzaile izango diren ordezkariak, prokuradoreak edo letratuak izendatuko ditu, eta horiek ahalmen dugu kontuak adosteko edo bertan behera uzteko ere adiskidetzetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo edonolako ekintzetan, eta edonolako prozedura-egoeretan, horren balio gabetzea eskatu edo dena-delakoa egiteko, bai eta zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.

r) Fondo eta ondasun sozialak eskura izatea, horiek erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik. Horretarako, Kutxa Orokorretik hartu edo sortuko dira gordailuak interes sozialerako komeni den tokira lekualdatzeko. Gainera, bankuko kontu korranteak eratzeko ahal- mena izango du, metalikoan, kreditu bidezkoa edo balorezkoa, eta bertatik metalikoa edo baloreak atera ahal izango ditu. Hala, orokorrean, estatuko nahiz atzerriko bankuekiko edonolako eragiketarik egin ahal izango ditu, bai eta Banco de España ere. Korrespontsalen esku dauden Kooperatibaren fondoak eta ondasunak ere eskura edukitzea. Aldaketa-letrak, manuzko zor-agiriak, eta bestelako merkataritza-efektu eta igorpenak jaulki, endosatu, bermatu, onartu eta onetsi edo ordaindu ez direlako, eta segurtasunaren alde, protesta egiteko ahalmena.

s) Betebehar jakinetarako edo jardute sozialaren zenbait adar zuzentzeko pertsonen ahalmenak ematea.

t) Kasua bada, Batzar Nagusiari ordainketa-etendurak, kiebra eta Kooperatibaren deuseztatzea proposatzea, eta prozesu horretan bere aginpidekoak diren faseak betetzea.

u) Estatutu hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak ebatzi eta agintzen den hurreneko Batzar Nagusiari horren berri ematea.

v) Estatutu hauetan bereziki esleitutakoak.

HIRU.- Kontseilu Errektoreak dituen eskumen zerrenda hori adierazpenekoa da soilik, eta ez ditu haren eskumenak mugatzen Legez bereziki Kooperatibaren beste organo baten aginpidekoan ez bada bederen.

### 31. ARTIKULUA. Kontseilu Errektorearen osaera eta berriztatzea.

BAT.- Kontseilu Errektorea zortzi kide osatuko dute, eta hauetako hiruk lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak beteko dituzte.

**BI.- Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, isilpeko bozketa bidez, balioz emandako boto kopuru handiena kontuan izanda.**

11/2019 Legearen 43. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Kontseilu Errektorea honela osatuko da: Bazkide erabiltzaileen arteko 6 kide - irakaskuntza arautuko 3 bazkide erabiltzaile eta irakaskuntza ez-arautuko eta beste zerbitzu batzuetako 3 kide erabiltzaile-; eta lan bazkideen arteko 2 ordezkari, eta, horien ezean, bi leku horiek 2 bazkide erabiltzailek beteko lukete -1 irakaskuntza arautukoa eta 1 irakaskuntza ez-arautukoa eta beste zerbitzu batzuetakoa-, aipatutako bazkide multzoetatik aukeratutakoak. Bazkide multzo edo mota horiek Estatutu hauen 5. artikuluan daude araututa. Isilpeko bozketaz aukera- tuko dira, eta kargua lau urterako izango da eta berriro ere aukeratuak izan daitezke beste lau urterako. Epea igaro ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek euren karguan jarraituko dute behin-behinean, hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

Horien izendapenarekin batera lau ordezkari aukeratuko dira; horietatik hiru bazkide erabiltzaileak izango dira -irakaskuntza arautuko 2 bazkide era-

biltzaile eta irakaskuntza ez-arautuko eta beste zerbitzu batzuetako bazkide erabiltzaile 1- eta bat lan bazkidea izango da, eta, horren ezean, ordezkaria irakaskuntza ez-arautuko eta beste zerbitzu batzuetako bazkide erabiltzaile bat izango da.

Kontseilu Errektorea zatika berriztatuko da, bi urtean behin, erdika, kideen arteko 4 laguni eragingo diolarik; lehenengo berriztatzea zozketaz egingo da.

HIRU.- Eratutako Kontseiluak bere kideen artean aukeratu ditu lehenengo bilkuran lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria; besteak bokalak izango dira.

LAU.- Kontseilu Errektoreko karguren bat behin-betiko hutsik gertatzen denean, berehala ordezkarietako lehenengoak beteko du kargu hori, eta ordeztutakoari Estatutuaren arabera geratzen zizaien aldi iraungo du kargu horretan.

Kargua hutsik geratze hori artikulua honen HIRU atalean aipatutako karguren batean gertatzen bada, Kontseilu Errektoreko kide batek beteko du kargua, eta organo honek jarriko du karguan, izendatutako ordezkariak aurretik sartuta. Aldi baterako falta denean, lehendakariordeak ordeztu beharko du lehendakaria eta honek eskuordetutako funtzioak hartu. Idazkaria ez dagoenean, kontseilari gazteenak beteko du haren lekua.

**BOST.-** Kontseilari izateko aukeratu izandako epearen barruan gutxiengo bat hutsik geratzen bada, eta ordezkari ez badago, kontseilu errektoreak bazkideen artean izendatu ahal izango du postu hutsa beteko duen pertsona, lehenengo batzar orokorra egin arte.

**SEI.-** Kontseilari batek uko egiteko arrazoiak eman beharko ditu, eta idatziz jakinarazi beharko dio Kontseilu Errektoreari. Kontseilu Errektoreak zehaztu beharko du uko egiteko adierazitako arrazoiak justifikatuta dagoen ala ez, eta idatziz jakinarazi beharko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da batzar nagusian edo errekurtsio-batzordean, nahitaezko bazarako ezarritako baldintza eta epe berberetan.

Uko-egitearen eragin-data uko egin duen kontseilariak bere jakinarazpenean

ezarritakoa izango da, eta ezin izango da, inola ere, jakinarazpenaren data baino lehenagokoa izan.

Kooperatibak uko egitea justifikatu gabekotzat jotzen badu, hala badagokio, kalte eta galeren ordaina eskatu ahal izango zaio administratzaileari.

**ZAZPI.-** Honako hauek ezingo dira Kontseilu Errektoreko kide izan:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak, judizialki ezgaituak, Konkurtso Legearen arabera desgaitutako pertsonak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu arte, eta askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren, segurtasun kolektiboaren edo Justizia Administrazioaren aurkako delituengatik edo edozein faltsutasun-motagatik kondenatutakoak, bai eta euren kargua dela-eta merkataritzan jardun ezin dutenak ere.
- b) Kasuan kasuko sozietateen berezko jarduerekin zerikusia duten eginkizunak dituzten funtzionarioak edo herri-Administrazioaren zerbitzura daudenak, epaileak, magistratuak eta legezko bateraezintasunen bat duten gainerako pertsonak.
- c) Kooperatibarekin lehiatzen diren jarduerak egiten dituztenak edo besteren kontura egiten dituztenak, edo edozein modutan kooperatibaren interesen aurkakoak direnak, lege honen 49.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- d) Zaintza-batzordeko eta baliabide-batzordeko kideak eta zuzendari gerenteak.
- e) Estatutuaren aurreikusitako kasuetan daudenak.

**ZORTZI** Gai-zerrendan egon gabe, Batzar Nagusiak erabaki dezake Kontseilu Errektoreko kideen kargugabetzea, baina bertan pertsonalki eta ordezkari gabe dauden botoen bi herenen eman beharko dute kargugabetze horren aldeko botoa.

Kontseilariaren bat kargutik kentzen bada, kontseilari berria aukeratu da Batzar Nagusiaren bilkura berean, nahiz eta ez egon Gai Zerrendan sartuta.

**BEDERATZI.-** Kontseilariaren kargu-uzteak, edozein arrazoiengatik dela ere, Kooperatiba-Erregistroan inskribatzen den unetik izango du eragina hirugarrengotzat.

### 32. ARTIKULUA. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua.

BAT.- Kontseilu Errektorea, nahitaez bilduko da hilean behin -baldin eta Kooperatibaren jarduera nagusia oporreatatik etenda ez badago bederen- edo, aparteko deiaren bidez Kontseilu Errektoreko kontseilariren batek eskari motibatua egiten badu; eta bileretan, bere eskumeneko gai guztiak azter eta erabaki ditzake.

BI.- Kontseilu Errektorearen bileretara lehendakariak dei egingo du administratzaile bakoitzari zuzendutako idazki bidez.

Aparteko deia egiteko eskaria, aurreko atalean aurreikusia, lehendakariak ez badu zazpi egunen barruan betetzen, eskari motibatua egin duenak berak egin dezake deia; baina. Horretarako, kontseilarien heren baten adostasuna lortu behar du gutxienez

HIRU.- Kontseilu errektorea balioz eratuko da bilerara kontseilarien erdiak baino gehiago joaten badira. Nork berak joan behar du bilerara, ezin da ordezkari izendatu, eta erabakiak bertaratutako kontseilarien gehiengo soilez hartuko dira. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du. Berdinketak direnean lehendakariaren botoak erabakiko ditu.

**LAU.-** Kontseilu Errektorearen bilera egiteko deialdian jasota badago, kontseilarien bertaratzea bideokonferentzia bidez edo irudiaren eta soinuaren bidez, noranzkoko eta aldibereko komunikazioa eta ikusmen-, entzumen- eta hitz-elkarreragina ahalbidetzen duen antzeko beste sistema baten bidez egiaztatu ahal izango da.

Idazkariak aktan berariaz jasoko ditu kontseilarien nortasuna eta bertaratzeko erabilitako bidea, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

**BOST.-** Bilerako aktak, lehendakariak eta idazkariak izenpeturik, eztabaidak jasoko ditu labur, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta horiek Kontseilu Errektorearen Akta Liburuan transkribatuko dira.

**SEI.-** Kontseilu Errektoreak bildutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du, gutxienez, honako erabakiak hartzeko:

- a) Lantoki nagusi bat edo lanaren zati esanguratsu bat amaiarazi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jardueraren funtsezko murrizketa, hedapen edo aldaketak egiteko.
- c) Kooperatibaren antolamenduan garrantzi handiko aldaketak egiteko.
- d) Kooperatibarentzat lankidetzaren harreman iraunkor eta baliotsuak diren loturak ezarri edo eteteko beste erakunde batzuekin, hauek kooperatiba izan edo ez.

Lehendakariaren botoak erabakiko ditu berdinketak.

**ZAZPI.-** Kontseilu Errektorearen ahalmen bat Batzorde Eragileari edo kontseilari delegatu bati iraunkorki delegatzeko eta kargu horiek beteko dituzten kontseilariak izendatzeko, kontseilarien bi herenen aldeko botoa behar da, eta ez du ondoriozko izango Kooperatiba-Erregistroan inskribatu arte.

### 33. ARTIKULUA. Kontseilu Errektorearen inguruko xedapenak.

BAT.- Kontseilu Errektoreko lehendakariari dagokio:

- a) Kooperatibaren ordezkari izatea, Kontseilu Errektorearen izenean, edonolako kontuetan, bai eta Kontseilu horren eta Batzar Nagusiaren bilkurak zuzentzea.
- b) Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak bete daitezzen aginpideak ematea eta beharrezko diren dokumentu pribatu eta publikoak izenpetzea.
- c) Kontseilu Errektorean erabakiak hartzeko garaian suerta daitezkeen berdinketak alde batera edo bestera erabakitzea.
- d) Azkar hartu beharreko erabakiak hartzea, Kontseilu Errektoreak egiten duen hurrengo bileran horren berri emango duelarik.
- e) Ordainketak baimentzea, berauek izenpetuz.
- f) Kontseilu Errektoreak eskatzen dizkion egintza, gestio edo bestelako lanak burutzea.

BI.- Lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du eta lehendakariarenak diren funtzioak beteko ditu hura ez dagoenean. Era berean, Kontseilu Errektoreak eta Lehendakariak berak emandako lan eta gestioak burutuko ditu, bereziki, lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kideei eskualdatutako gestioak.

HIRU.- Idazkariak honako funtzioak edukiko ditu:

- a) Espedienteak eratu eta behar bezala tramitatzea.
- b) Lehendakariarentzat edo lehendakariordearentzat gordeta ez dauden gutun eta dokumentuak sinatzea.
- c) Batzar Nagusietarako eta Kontseilu Errektoreetarako deialdiak idatzi eta deiak egitea.
- d) Aurrean aipatutako organoen bilkuren aktak egitea.
- e) Batzar Nagusiko eta Kontseilu Errektoreko artxibo, erregistro-liburu eta akta-liburuak gordetzea.

f) Lehendakariaren oniritzia adierazita dutela Kooperatibaren liburu eta dokumentuen erreferentzia egiten duten egiaztagirien igorpena egitea.

g) Kontseilu Errektoreak emandakoak.

#### **34. ARTIKULUA. Kontseilu Errektorearen erantzukizunak eta erantzukizun-egintza.**

BAT.- Kontseilu Errektoreko kideek ez dute karguagatik ordainsari berezirik jasoko; jasotzekotan ere, beren egitekoak sortzen dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

BI.- Kontseilu Errektoreko kideek legezko ordezkari eta kudeatzaile txukunari dagokion prestutasunaz beteko dituzte karguak, legearen edo Estatutuen kontra zertutako edo behar bezalako prestutasunez zertu gabeko egintzek era- gindako kalteengatik erantzunez.

Egintza hori zertu edo erabaki kaltegarria onartu zuen organoko kide guztiak izango dira solidarioki erantzule, salbu, horiek onartzen edo betearazten esku hartu gabe, bazirenik ere ez zekitenak, edo jakinda ere, kaltea eragozteko ahal zuten guztia egin, edo, gutxienez, beraren aurka berariaz agertu zire- nak

Ez du erantzukizuna arinduko egintza edo erabaki kaltegarri hori Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak.

HIRU.- Kontseilarien kontrako erantzukizun-ekintza soziala egikaritu ahal izango du Kooperatibak, Batzar Nagusiak horrela erabaki ondoren gehiengo arruntez, nahiz eta Gai Zerrendan ez agertu. Edozein momentutan, Batzar Nagusiak amore eman edo uko egin ahal izango dio ekintza egikaritzeari. Batzar Nagusiak erantzukizun-ekintza sustatzeko erabakia hartzeak kontseilari horiek automatikoki kargutik kentzea esan nahi du.

Erabakia hartu ondorengo hiru hilero barruan Kooperatibak ez badio erantzukizun-egintzari ekiten, edozein bazkidek egin ahal izango du.

LAU.- Erantzukizuna sortu zuten egintzak gertatu edo jakin zirenetik bi urtera preskribituko du ekintzak.

BOST.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, aparte gelditzen dira bazkide eta hirugarrenen zertu ditzaketen ekintza indibidualak, kontseilarien egintzek beraien interesak zuzenean kaltetu dituztenean.

#### **35. ARTIKULUA. Zuzendari-gerentea. Izendapena eta kargu-uztea.**

Kontseilu Errektoreak zuzendari-gerente bat izendatu ahal izango du Kooperatibaren jardueraren gestio profesionalizaturako.

#### **36. ARTIKULUA. Zuzendari-gerentearen betebeharrak eta erantzukizunak.**

Zuzendari-gerentearen izendapena eta funtzioak honako arauen pean egongo dira:

a) Kontseilu Errektoreak eskuordetuko dizkio eskumenak, eta honek kontrol etengabekoa eta zuzena izango du harengan eta organo sozial honek onetsitako gestio xedeak betearaziko dizkio.

b) Kontseilu Errektoreak edukiko du eskumena zuzendari-gerente kargua betetzen duen pertsona izendatu eta kargutik kentzeko. Izendatzea eta kargu-uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira emandako aginpideak hartu dituela adierazten duen eskriturarekin batera.

c) Zuzendari-gerentea lan-bazkidea nahiz besteren konturako langilea izan daiteke.

d) Zuzendari-gerenteari ere aplikatu dakizkioke Kontseilu Errektorearentzat aurreikusitako erantzukizun-arauak; baina, erantzukizun-ekintza Kontseilu Errektoreak berak egikaritu ahal izango du, Batzar Nagusiaren erabaki sozialen kontra egiteko ezarritako epe berean.

e) Ezingo da zuzendari-gerente izan abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako kasuetan aurreikusitako debeku eta bateraezintasunak dituztenak.

### 37. ARTIKULUA. Zaintza-Batzordea. Aginpidea eta funtzionamendua.

**BAT.- Zaintza Batzordea 4 kide titularrek eta lau ordezkok osatuko dute. Kide horiek Batzar Nagusiak hautatuko ditu isilpeko bozketan, hiru urterako, eta berriro ere hautatu ahal izango dira.**

BI.- Zaintza-Batzordeko kide guztiak bazkideak izango dira, bai titularrak, bai ordezkoak.

HIRU.- Batzar Nagusiak atzera bota ditzake Zaintza-Batzordeko kideak, betiere isilpeko bozketaz eta balioz emandako aldeko botoen kopuru handienaz.

Ordezkariek hautaketa titularrena bezala egingo da.

LAU.- Zaintza-Batzordeak honako ahalmen hauek ditu:

a) Urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitea, beti ere Batzar Nagusiari aurkeztu baino lehen -salbu Kooperatiba behartuta badago bere finantzen egoera-orriak kontu-ikuskatzaile bati aurkeztera-.

b) Kooperatibako liburuak ikuskatzea.

c) Batzar Nagusiari dei egitea, berari Kooperatibarentzat interesgarri dela iruditu eta Kontseilu errektoreak ezentzun egin badiete, ezarritako epeetan, bazkideek aurretik eginiko eskabideei, Euskadiko Kooperatiben Legearen 33. artikuluko 2 eta 3 puntuetan xedatutakoari jarraituz.

d) Ordezkaritza-agirien egokitasuna ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, Batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzea.

e) Sozietatearen erabakiak aurkaratzea, Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusitako kasuetan.

f) Batzar Nagusiari informatzea, honek aurkezten dizkion egoera edo arazoei buruz.

g) Batzar Nagusiak beste organoetako kideak aukeratu eta izendatzeko zertzen duen prozesua zaintzea.

h) Kontseilariren bat abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 44. artikuluko ezgaitasun edo debeku-kasuren batean sartuta badago kargugabetzea eta, kasua bada, Batzar Nagusia egin bitartean ezinbesteko neurriak hartzea.

i) Abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legeak ematen dizkion gainerako egitekoak.

#### **BOST.- Zaintza-Batzordeak bertako kideen artetik, isilpeko bozketaz, izendatuko ditu lehendakaria eta idazkaria.**

Erabakiak hartzeko kideen aldeko botoen gehiengoa beharko da beti, eta, berdinketa gertatzen bada, lehendakariak ez du erabakiko; kasu horretan, Zaintza-Batzordeak beste bilkura bat egin beharko du, eta, berriro ere berdinketa gertatuko balitz, dimisioa aurkeztu beharko dute Kooperatiban egiten den lehenengo Batzar Nagusian.

Elkargo den aldetik, eta kide bakoitzaren eskumenen kaltetan izan gabe, hiru hilean behin bilduko da, hots, urtean gutxienez lau bilkura egin beharko dituzte, eta balioz eratuta egongo da bilkuran gutxienez hiru kide daudenean. Ezingo da botoa eskuordetu.

Hala ere, Kontseilu Errektoreko edozein kidek edo Batzordeko bertako kide batek eskatu ahal izango dio organo honetako lehendakariari, idatziz, batzarrerako, eskabidearen arrazoiak adieraziz. Eskabide hori Kontseilu Errektorearen edo Batzordearen beraren kideen gutxienez heren batek egin badu, eta hilabeteko epean deitu ez bada, eskabidea egin duen edozein taldek egin ahal izango du deialdia.

SEI.- Likidazio aldian Zaintza-Batzordeak artikuluko honetan epe horretarako egoki irizitako funtzioak baino ez ditu egikarituko.

### 38. ARTIKULUA. Errekurtso-Batzordea.

BAT.- Errekurtso-Batzordeak, eta beste inork ez, du Kooperatiban lehen eskariz hatutako zehapen-erabakiak ikuskatzeko eskumena, baldin-eta lege- hauste larri edo oso larriengatik auzipetutako bazkideak berariaz horretarako eskabidea egin badu; horretaz gain, berdin egingo da diziplinakoak ez diren beste erabaki batzuekin, Estatutu hauetan eta 11/2019 Legean aurreikusita baldin badago.

BI.- Batzar Nagusiak aukeratzen du, isilpeko bozketaz, Errekurtso- Batzordea. Batzorde hau osatuko dutenak dira: lau kide eta beste hainbeste ordezkari, Kooperatibako bazkideen artetik aukeratuak, beste sozietate-kargurik ez dutenak eta Kooperatiban, gutxienez, 5 urteko antzinakotasuna dutenak; gainera, esperientzia kooperatiboa izango dute eta kargua betetzeko egokitasuna. Agintaldia lau urtekoa izango da, eta berriro ere aukeratuak izan daitezke.

Batzordeak euren kideen artetik aukeratuko ditu lehendakaria, eta idazkaria, eta horiek beren karguari dagozkion funtzioak izango dituzte.

HIRU.- Errekurtso-Batzordea balioz eratuta geratuko da bilkuran kideen erdiak agertzen direnean, eta ezin izango da botoa eskuordetu. Erabakiak balioz emandako botoen gehiengoz hartuko dira. Diziplina kontuen inguruko erabakiak hartzeko bozketa beti isilpekoa izango da, eta ez da egongo lehendakariaren kalitate-botorik.

Errekurtsoen tramitazio eta ebazpenetatik kanpo geratuko dira 11/2019 Legearen 58. artikuluan 4. atalean aipatutako batzarkideak.

LAU.- Batzordearen aktek erabakien testua jasoko dute; horiek Errekurtso-Batzordearen Liburuan transkribatuko dira, lehendakariak eta idazkariak izenpetuta.

Erabakiak behin-betikoak izango dira, eta berehala betearaztekoak, eta beroien kontra egin ahal izango da Batzar Nagusiak hartutakoen aurka egiten den bezalaxe, 29. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

BOST.- Errekurtso-Batzordearen funtzionamendu erregimena, artikulua

honetan aurreikusitakoari dagokionez, Kooperatibaren Barne Araudian xedatutakoari lotuko zaio.



# 5. Kapituluak

## KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

### 39. ARTIKULUA. Erantzukizunak.

**BAT.-** Kooperatibak gaur egungo eta etorkizuneko ondare guztiarekin erantzungo du sozietate-zorreatatik, kooperatiba-hezkuntza eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokionarekin izan ezik, azken horiek bere helburuak betetzeko hartutako betebeharre baina ez baitiete erantzuten. Bazkideek ez dute erantzukizun pertsonalik izango sozietate-zorren gainean. Zor horiegatiko erantzukizuna harpidetutako kapital sozialari egindako ekarpenetara mugatuko da.

BI.- Baja sortzen duen bazkideak, behin itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztutakoan, ez du erantzukizunik izango Kooperatibak bajaren aurretik eginiko zorreatatik.

**TRES.** Kooperatiba-sozietatearekin kontratuak sinatu dituzten edo betebeharrak euren gain hartu dituzten bazkideek, baldin eta, euren izaerarengatik, bazkide izateari uzten ez badiote, baja hartu ondoren ere izango dute horiek betetzeko erantzukizuna.

### 40. ARTIKULUA. Sozietate-kapitala.

BAT.- Bazkideek eginiko derrigorrezko edo borondatezko ondare ekarpenek eratzen dute Kooperatibaren sozietate-kapitala.

BI.- Kooperatibaren gutxieneko sozietate-kapitala 120.202,42 EUROTAN (EHUN ETA HOGEI MILA BERREHUN ETA BI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO) ezartzen da

HIRU.- Sozietate-kapitalari eginiko ekarpenak parte-hartze kartila izendunen bitartez egiaztatuko dira.

LAU.- Ekarpenak dirutan egingo dira, baina ondasun eta eskubidetan ere egin ahal izango dira; kasu horretan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du horien balioa, horretarako izendatutako aditu independente baten txostena eskuratuta.

**BOST.** Bazkideen kapital sozialerako ekarpenak Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe ez onartzeko aukera ematen duten ekarpenak dira, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 60-1-b Artikuluaaren arabera. Ekarpen horiek honako hauek izango dira:

1.- Bazkideen hasierako derrigorrezko ekarpenak.

2.- Edozein bazkideren borondatezko ekarpenak

Baja hartuz gero, itzultzeko eskubidea duten ekarpenak kooperatibak baldintzarik gabe ez onartzeko aukera ematen duten ekarpen bihurtzeko edo alderantzizko eraldaketarako, estatutuak aldatzeko erabakia hartu beharko da. Ados ez dagoen bazkideak baja eman ahal izango du, eta baja hori justifikatutzat joko da.

**SEI.-** Bazkide laguntzaileek salbu, bazkide batek ere ez du izango sozietate-kapitalaren heren bat baino handiagoa den ekarpenik.

#### 41. ARTIKULUA. Sozietate-kapitalari eginiko derrigorrezko ekarpenak.

BAT.- Hasierako derrigorrezko ekarpena desberdina da bazkide motaren arabera; honela zehazten dira horiek:

- Bazkide erabiltzaileak: 601,01 euro.
- Iraupen mugaturik gabeko lan-bazkideak: 601,01 euro.
- Iraupen mugatuko lan-bazkideak: 180,31 euro.
- Bazkide laguntzaileak:
  - Pertsona fisikoak: 60,10 euro.
  - Pertsona juridikoak: 120,20 euro.
- Bazkide ez-aktiboak: 180,31 euro.

Era berean, bazkide bakoitzaren gutxieneko sozietate-kapitalaren zenbatekoa bazkide motaren arabera zehazten da, ondoren adierazten den bezala:

- Bazkide erabiltzaileak: 300,51 euro.
- Iraupen mugaturik gabeko lan-bazkideak: 300,51 euro.
- Iraupen mugatuko lan-bazkideak: 90,15 euro.
- Bazkide laguntzaileak:
  - Pertsona fisikoak: 60,10 euro.
  - Pertsona juridikoak: 120,20 euro.
- Bazkide ez-aktiboak: 180,31 euro.

BI.- Bazkide izaera hartzeko hasierako derrigorrezko ekarpen osoa bazkidea onartzean bertan izenpetu beharko da; une horretan zenbatekoaren %25 ordaindu beharko da, gutxienez, zehaztutako sarrera-kuotaz gain. Betekizun hori gabe ez zaio Bazkideen Errolda Liburuan inskribatuko. Izenpetutako eta ordaindu gabeko gainerakoa luzeen jota lau urteko epean, onartze-erabakiaren egunetik hasita, ordaindu beharko zaio Kooperatibari, Kontseilu Errektoreak hartutako onartze-erabaki horretan aurreikusitakoari jarraituz.

HIRU.- Kooperatibaren galerak bazkideei egozteagatik, edo estatutuetan aurreikusitako ekonomia-zehapenen batengatik, bazkide batzuen sozietate-kapitalerako ekarpena Estatutua Sozialen artikuluko honetako Bat atalean adierazitako gutxienerako zenbatekoaren azpitik geratuko balitz, kaltetutako bazkideek zenbateko horretara arte iristeko ekarpena egin beharko dute; horretarako, Kontseilu Errektoreak berehala deituko ditu bazkideak. Ekarpene hori hiru hilabeteko epean ordainduko da, Kontseilu Errektorearen deia jasotzen duenetik hasita.

LAU.- Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide berrien hasierako derrigorrezko ekarpena, eta derrigorrezko ekarpen berriak eskatzeko erabakia hartu ahal izango du, eta bazkide mota bakoitzari dagokion zenbatekoa, ordaintze-ko epeak eta baldintzak zehaztu. Derrigorrezko kapital-gehitze horrekin ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du, eta zuritutzat hartuko zaio.

Batzar Nagusiak bazkideentzako derrigorrezko ekarpen gehiago eskatzea erabakiko balu, eta Kooperatiban bazkideen borondatezko ekarpenak egongo balira, derrigorrezko ekarpenak borondatezkoekin estaltzeko aukera izango dute; horretarako, Kontseilu Errektoreari idatziz eskatu beharko diote hamar eguneko epean, bertaratutako bazkideentzat erabakia hartu zenetik hasita, eta ez daudenentzat, jakinarazpena egiten zaienetik hasita.

BOST.- Aurreko ataletan aipatuari jarraiki eska daitezkeen ekarpenak ordaintzen ez dituzten bazkideek Kooperatibari ordaindu beharko dizkiote legezko interesak eta ez-ordaintze horrek sortutako kalte-ordainak. Eskatu eta hirurogei eguneko epean ordaindu ez duen bazkideari gerta dakiokena:

a - Nahitaezko baja eman ahalko zaio baldin-eta bazkide izateko hasierako derrigorrezko ekarpena bada edo, artikuluko honetako 1 atalarekin loturako 3 atalak aipatzen duen gutxienerako zenbatekoa bada; edo

b - Gainerako balizkoetan Kooperatibatik kanporatua izan daiteke.

#### 42. ARTIKULUA. Borondatezko ekarpenak.

BAT.- Bazkideek sozietate-kapitalari egiten dizkioten borondatezko ekarpenak onartzeko erabakia hartu ahal izango du Batzar Nagusiak; eta, horretara- ko, ondorengo kontzeptuen baldintzak finkatu beharko ditu gutxienez:

- Ordaintzeko epea
- Interes-tasa, diruaren legezko interesa baino altuagoa izango ez dena
- Eguneratzea
- Itzultzea
- Eskualdatzeko aukera

Baldintza horiek derrigorrezko ekarpenak baino hobeak izan daitezke.

BI.- Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, ordainketa- eta zenbatekoen mugak errespetatuta, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 63-2 eta 60-5 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

#### 43. ARTIKULUA. Ekarpenak eguneratzea.

BAT.- Kooperatibaren balantzea zuzenbide komuneko sozietateetarako ezartzen diren muga eta baldintzei jarraituz erregulatuko da.

BI.- Balantzea erregulatzearen ondoriozko gainbalioa lehenik eta behin galerak konpentsatzeko erabiliko dira, ekitaldi batean edo gehiagotan; gainerakoa, eta Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoa, kapitala eguneratzeko, edo erreserbak handitzeko, bai derrigorrezkoak izan, bai borondatezkoak izan.

#### 44. ARTIKULUA. Ekarpenen interesak.

Sozietate-kapitalera egin beharreko derrigorrezko ekarpenek ez dute interesik sortuko, eta borondatezkoek, interesik sortuz gero, interes hori ez da izango legez diruak duena baino altuagoa.

**45. ARTIKULUA. Ekarpunen eskualdatzea.**

BAT.- Ekarpinak bizien arteko egintzaz (intervivos) edo heriotzagatiko (mortis causa) oinordetza bidez.

BI.- Bizien arteko egintzaz, bazkideen artean, bai eta hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenek ere. Honako arauak jarraitu beharko dira:

- Bazkide izateko konpromisoa hartu duenari egindako eskualdaketak baldintza bat izango du: benetan bazkide izateko onartua izatea.
- Eskualdatzen duen bazkidearen ekarpena ez da geratuko unean-unean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpenaren zenbatekoaren azpitik.
- Hartzailak eskualdatutako ekarpena erabili ahal izango du hasierako derrigorrezko ekarpena eta sarrera kuota ordaintzeko.
- Erabakitako eskualdaketak Kontseilu errektoreari jakinaraziko zaizkio, honek baieztatu, kontrolatu eta egin beharreko erregistroa egiteko.

Titularrek baja emandakoan Kooperatibak ekarpena itzultzea ukatu duenean, bazkide berrien hasierako derrigorrezko ekarpenak, baja eman duten bazkideen ekarpenak eskuratuta egingo dira. Ekarpinak itzultzeko eskarien antzinasun-hurrenkeraren arabera egingo da eskualdaketa eta, data bereko eska-riak direnean, ekarpenen zenbatekoaren arabera.

HIRU.- Heriotzagatiko oinordetza bidez, eskubide-hartzaileri, bazkide badira eta horrela eskatzen badute; bazkide ez badira aurrekoa hil eta 3 hilabeteko epean oinordekoak eskatu eta bazkidetzat onartzen denean.

**LAU.** Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inolako eskubiderik izango kooperatiben ondasunen gainean, ezta bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen gainean ere, horiek enbargaezinak baitira. Hori guztia, hartzekodunak bazkideari dagozkion errenbolsotxo, interes eta itzulkinen gainean balia ditzakeen eskubideak kaltetu barik.

**46. ARTIKULUA. Ekarpinak itzultzea.**

BAT.- Bazkide izaera galtzen den orotan, honek edo beronen eskubide-hartzaile kreditatuek badute ahalmena ekarpenak itzul diezazkieten eskatzeko, baja egunean zuten balioarekin eta legezko xedapenetan ezarritako baldintzekin.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uko egin ahal izango dio

Estatutu hauen 40. Bost. 2 artikuluan hasitako ei dagozkien ekarpenak itzultzeko edozein eskaerari.

BI.- – 14 eta 15. artikuluen arabera, baja justifikatuta dagoenean, edo heriotzagatik, ez da kenketarik egingo ekarpenen gainean.

Beste kasu guztietan, Kontseilu Errektoreak kenketa egitea erabaki ahal izango du:

- a) % 30erainokoa kanporatzeagatik baja denean, edo justifikatu gabeko borondatezko baja denean, gutxieneko iraupen-epea ez-betetzeagatik.
- b) Bazkidearen derrigorrezko ekarpenen likidazioaren zenbatekoaren % 20erainokoa justifikatu gabeko baja denean, borondatezkoa nahiz derrigorrezkoa izan. Ez da egingo borondatezko ekarpenen kenketarik.

HIRU. Ekarpina itzultzeko eskaria Kontseilu Errektoreak onartzen duenean, itzultzeko epea ez da bost urtetik gorakoa izango erabakia hartu zen egunetik hasita, edota ez da urtebetetik gorakoa izango bazkidearen heriotza gertatu bada. Kontseilu Errektorearen eskumena da hori erabakitzea.

LAU. Kooperatibak itzultzea erabaki duen ekarpenetan, itzuli gabe dauden kopuruek, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran dagoen diruaren legezko interesak jasotzeko eskubidea emango dute, baina ez eguneratzeakoa.

#### **47. ARTIKULUA. Parte-hartze bereziak.**

BAT.- Hauek dira bazkideek edo hirugarrenen eginiko ondare-ekarpenak, bost urte baino epe luzeagoan itzultzekoak direnean. Horien epemuga eta Kooperatibaren likidazioa batera egokitzen direnean, sozietate-kapital moduan kontabilizatuko dira.

BI.- Batzar Nagusiaren aginpidea da parte-hartze bereziak onartzea, eta horri dagokion erabakian honakoa zehaztu beharko da:

- a) igorpenaren zenbatekoa eta baldintzak, bazkideenak diren eskubideak inoiz egotzi gabe, eta
- b) euren adierazpen-tituluei higigarri-balorerik ematen dioten ala ez.

#### 48. ARTIKULUA. Sarrera-kuotak eta aldizkakoak.

BAT.- Batzar Nagusiak urtero ezarriko du bazkide berriek hasierako ekarpenarekin batera ordaindu beharreko sarrera-kuotaren zenbatekoa. Zenbatekoa ezingo da izan bazkide mota bakoitzari ezartzen zaion hasierako derrigorrez-ko ekarpenaren %25 baino altuagoa.

BI.- Sarrera-kuotak ez dira pertsonalki itzultzekoak izango, eta ez dira sozietate-kapitalean sartuko; Derrigorrezko Erreserba Fondorako izango dira.

HIRU.- Era berean, Batzar Nagusiak bazkideek ordaindu beharreko aldizkako kuotak finkatu ahal izango ditu. Noizerokoa, zenbatekoa, eta modua aipatu organoak zehaztuko ditu. Kuota horiek ez dira sozietate-kapitalerakoak izango eta ez zaizkie bazkideei itzuliko.

Aldizkako kuotak bazkide guztiei edo Estatutu hauetan aurreikusitako bazkidetza-motaren bati eskatu ahal izango zaio.

#### 49. ARTIKULUA. Beste finantziazio batzuk.

Kooperatibak, aurretik dagozkion erabakiak hartu ondoren, abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 68. artikuluen 3. eta 4. ataletan aurreikusitako edozein finantziaketa-modalitatearen aurka jo ahal izango du.

#### 50. ARTIKULUA. Soberakin garbiak.

BAT.- Soberakin garbiak finkatzeko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako arau eta irizpideak aplikatuko dira, ondorengo atalean xedatutakoa kontuan hartuz.

BI.- Kenketa onartzen duten sailak:

- Kooperatibaren gestiorako emandako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioa baino altuagoa ez den balorazioan.
- Lan-bazkideen lan-aurrerakinen zenbatekoa, osoki hartuta Kooperatibaren jardura-sektorerako inguruan dauden ordainketen zenbatekoa gainditu gabe.
- Sozietate-kapitalari eginiko ekarpenek, parte-hartze bereziek eta sozietate-kapitalean sartzen ez diren ordainsari eta bestelako finantziazioek sortutako interesak.
- Legez baimendutako amortizazioak.
- Kooperatibaren ibilbiderako gastuak.
- Aplikatu daitezkeen eta indarrean dagoen legediak honetarako onartzen dituen beste kenketak.

#### 51. ARTIKULUA. Eskura dauden soberakinen banatzea.

BAT.- Soberakin garbiek, behin aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabili beharreko zenbatekoak eta zergak kenduta, izango dira eskura dauden soberakinak.

BI.- Batzar Nagusiak honako arauari jarraituz banatuko ditu eskura dauden soberakinak:

- a) Gutxienez %30 Derrigorrezko Erreserba Fondoa eta Kooperatibako Heziketa eta Trebakuntza Fondorako orokorrean hartuta; hortik, Derrigorrezko Erreserba Fondorako gutxienez %20, eta Kooperatibako Hezkuntza eta Trebakuntza Fondorako gutxienez %10.

Kooperatibako Hezkuntza eta Trebakuntza Fondorako utzi beharreko gutxieneko ehuneko erdira jaitsi ahal izango da harik-eta Derrigorrezko Erreserba Fondoak sozietate-kapitalaren %50eko kopurua lortzen duen arte.

- b) Eskura dauden gainerako soberakinak Borondatezko Erreserba Fondo Banaezin bat eratzeko erabiliko dira Kooperatibak etorkizunean eduki ditzakeen galerak estali edo konpentsatzeko.

## 52. ARTIKULUA. Derrigorrezko fondoak.

**Bat.** Kooperatiba sendotzeko, garatzeko eta bermatzeko Nahitaezko Erreserba Funtsa ezin da bazkideen artean banatu.

Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurak ez ezik, bazkideek baja hartzen dutenean Kapital Sozialera egin beharreko nahitaezko ekarpenen gaineko kenkariak eta sarrera-kuotak ere Funts horretara bideratuko dira nahitaez.

**Bi.** Derrigorrezko Ekarpina enbargaezina da, eta haren zuzkidurak balantzeko pasiboan agertu beharko dira, beste partida batzuetatik bereizita.

Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere Derrigorrezko Ekarpin horretara bideratuko da nahitaez.

**Hiru.** Derrigorrezko Ekarpina interes publikoko helburu hauetakoren baterako erabiliko da. Ekarpin horren aplikazio-jarraitasun orokorrak berariazko araudian arautuko dira, eta Batzar Nagusiak finkatuko ditu ekitaldi bakoitzerako:

a) Bazkideak eta langileak kooperatibismoari, jarduera kooperatiboei eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruzko prestakuntza eta heziketa.

b) Kooperatiben arteko harremanen sustapena, kooperatiben arteko sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo laguntza-jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatik sortutako gastuen estaldura barne.

c) Hezkuntza, kultura, lan eta laguntza arloko sustapena, bai eta kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzea ere, kooperatibaren gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean.

d) Euskararen erabileraren sustapena.

e) Kooperatiba-enpresa berrien sustapena, euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati diru-ekarpenak eginez.

f) Bazkideen eta langileen prestakuntza eta heziketa, kooperatiba-sozietateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko.

**Lau.** Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Derrigorrezko Ekarpinaren zenbatekoa irabazi-asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, soberakina banatzea onartu den ekitaldiaren hurrengo ekitaldian, indarrean dagoen Kooperatibei buruzko legeria aplikagarrian Derrigorrezko Ekarpin horretarako ezarritako interes publikoko helburuetarako erabil dadin.

## 53. ARTIKULUA. Borondatezko fondoak.

Kooperatibak Borondatezko Erreserba Fondo bat eratu ahal izango du Batzar Nagusiak aurretik hala erabakitzen badu; fondo hori banaezina izango da eta galerak konpentsatzeko erabiliko da.

## 54. ARTIKULUA. Galerak egozteak.

BAT.- Batzar Nagusiak honako arauari jarraituz egotziko ditu galerak:

- a) Balantzearen erregulazio fondoaren kontra, kasua bada, 43. artikularen - Bi atalean adierazita bezala, ahal den zenbatekoan.
- b) Borondatezko Erreserba Fondoei, horiek baleude, oso-osoan.
- c) Derrigorrezko Erreserba Fondoari, gehienez, soberakin positiboak egon direneko azken bost urteetan derrigorrezko fondoetara eramandakoaren erdia. Hala ere, Derrigorrezko Erreserba Funtsak kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar gaintitzen badu, ehuneko horretatik gorako zenbatekoa galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da.



d) a), b) eta c)-ren arabera konpentsatu gabe geratzen den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie la Kooperatibara duten jarduerari erreparatuta eginiko proportzioan; bazkideei galerak kasuan-kasuan egotzeko parametroak honakoak dira:

- Galeren %80 bazkide erabiltzaileei egotziko zaizkie, eta gainerako % 20a lan-bazkideei; azken horiek ez baleude, %100a egotziko litzaieke bazkide erabiltzaileei.

- Ekitaldian jasotako lan-aurrerakinen guztizko zenbatekoak neurtuko du lan-bazkideek kooperatiba-jardueran duten parte-hartzea.

- Bazkide erabiltzaile bakoitzak ekitaldi batean Kooperatibara bidaltzen duen ikasle kopuruak neurtuko du bazkide horiek kooperatiba-jardueran duten parte-hartzea.

BI.- Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, Batzar Nagusiak erabaki dezake ekitaldi bateko galera guztiak, edo zati bat, kontu berezi baterako egotzea; kontu hori ez litzateke banako batena izango, eta etorkizuneko emaitza positiboen kargura eta, kasua balitz, balantze-erregulazioen kargura egingo litzateke amortizazioa, luzeen jota bost urteko epean.

Bost urteko epea agortuta, konpentsatu gabeko saldoa geratuko balitz, alde hori une horretan dauden bazkideen artean banatuko litzakete, azken urtean izandako kooperatiba-jardueraren arabera, aurreko ataleko d) letran aipatutako irizpidea jarraituta.

Epe horren barruan baja izan diren bazkideei konpentsatzeke geratutako galera-fondoan dagokien zatia egotziko zaie.

## 55. ARTIKULUA. Kontu-ikuskaritza.

BAT.- Aginduzkoa denean, edo 11/2019 Legearen 76. artikuluan aurreikusi- tako balizkoren batean, urteko kontuak eta gestio-txostena kanpoko ikuskarit- zapean jarriko ditu Kooperatibak.

BI.- Batzar Nagusiak izendatuko ditu ikuskariak eta, horren ezean, Kontseilu Errektoreak; azken kasu honetan, egiten den hurreneko Batzar Nagusian emango da izendapenaren berri.

# 6. Kapitulu DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

## 56. ARTIKULUA. Dokumentazio soziala.

BAT.- Kooperatibak ondorengo liburuak izango ditu egunean jarrita eta txukun:

- a) Bazkideen Errolda-Liburua
- b) Sozietateko Kapital-Ekarpenen Erregistro -Liburua
- c) Batzar Nagusiko, Kontseilu errektoreko, Zaintza-Batzordeko eta Errekurtso- Batzordeko akten liburua
- d) Inbentario- eta Balantze- Liburuak
- e) Egunkaria
- f) Legezko xedapenek eskatzen dituztenak.

Horiek guztiak erabili aurretik Kooperatiben Erregistroak gaitu edo, kasua bada, legezatu, beharko ditu.

BI.- Idazpen eta oharpenak informatikako prozeduraz edo egokiak diren bestelakoez egin daitezke. Horren ostean, kronologikoki ordenatu, koadernatuko eta legezatu egingo dira sei hilabeteko epean, ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita, Kooperatiben Erregistroan.

Horren kaltetan izan gabe, aipatutako organoen aktak, informatikoki edo antzeko prozeduraz egindakoak, Kooperatiben Erregistroa bidaliko dira, ziurtatze bidez, onesten denetik hasi eta bi hilabeteko epean, legezatu ditzaten.


## 57. ARTIKULUA. Kontabilitatea.

BAT.- Kooperatibak txukun eta bere jarduerari egokituta izango du kontabilitatea, Merkataritza Kodean xedatutakoaren eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenen arabera, eta kooperatiba-erregimenaren ezaugarriak errespetatuz.

BI.- Ekitaldi-itxieran Kooperatibaren urteko kontuak egingo dira, hauetan balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria sartuko dira, bai eta kudeaketa-txostena ere, urteko kontuak ikuskatzera behartuta baldin badago.

## 58. ARTIKULUA. Urteko kontuen gordailua.

Batzar Nagusiak onetsi eta hilabeteko epean, Kontseilu Errektoreak urteko kontuak aurkeztuko ditu Kooperatiben Erregistroan gordetzeko, eta, kasua bada, gestio-txostena eta kontuen ikuskaritzakoa ere bai, kontseilari guztiek izenpetuta. Kontseilariren batek egin ezingo balu, ez-egite horren zergatia adieraziko litzateke berariaz.



### 59. ARTIKULUA. Desegiteko kausak eta erabakia.

BAT.- Kooperatibak desegiteko kausak izango dira:

- Estatutu hauetan ezarritako xede soziala betetzeko ezintasun nabaria.
- Organo sozialen gelditze edo aktibitatearik eza, edo, bidezko arrazoirik gabe, Kooperatibaren jarduera etetea, bi urtez jarraian aipatu bi kasuetan.
- Kooperatiba eratzeko beharrezko den bazkide kopurua gutxienezkotik behera murriztea, egoera hori hamabi hilabetez luzatuz.
- Kapital soziala Estatutu hauetan ezarri den gutxieneko kapital soziala baino urriago izatea, hamabi hilabetez gutxienezko mailara iritsi gabe.
- Erabateko batzea edo zatiketa.
- Kooperatiba desegiteko adierazpena, erakunde horren likidazio-fasea irekitzen duen ebazpen judizialean jasotakoa, konkurtso-egoeran dagoenean, Konkurtso Legearen testu bategina onartzen duen maiatzaren Seko Legegintzako 1/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorrituz.
- Batzar Nagusiaren erabakia, horretarako berariaz deitua.
- Legeak ezarritako beste edozein kausa.

BI.- Desegintza-erabakiak gehiengo arruntez hartuko dira, e) eta g) kasuetan izan ezik; hauetan, bi hereneko gehiengo beharko da.

HIRU.- Kausa horietakoren bat gertatuz gero, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deia egin behar du bi hilabete epean. Zaintza-Batzordeak edo edozein bazkidek Kontseilu Errektoreari eskatu ahal izango dio deia egin dezan.

Kontseilu Errektoreak, eta interesa duen edonork, Kooperatiba desegitea eskatu ahal izango du, honako balizkoren bat gertatzen bada:

- Batzar Nagusirako deia ez egin izana.
- Batzar Nagusia ez biltzea Estatutu hauetan finkatutako epean.
- Batzar Nagusia bildu eta desegintza erabakia hartzeko gai izan ez izatea.
- Batzar Nagusia bildu eta desegitearen kontrako erabakia hartu izana.

LAU.- Desegintza-erabakia edo hori deklaratzeko duen ebazpen judiziala Kooperatiba-Erroldan inskribatu beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaian zabalkunde handia duen egunkariren batean argitaratu.

### 60. ARTIKULUA. Likidazioa.

Kooperatibaren likidazioa 11/2019 Legearen 93. eta hurrengo artikuluetan xedatu- takoari eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenei jarraituz egingo da.

### 61. ARTIKULUA. Sozietatearen ondasunen esleipena

**Bat.** Sozietatearen ondasunak ezin izango dira esleitu edo banatu sozietate-zorrek osorik ordaindu arte, horiek zainpean utzi arte edo mugaeguneratu gabeko kredituen ordainketa ziurtatu arte.

**Bi.** Aurreko paragrafoan zerrendatutako zorrek ordaindu ondoren, sozietatearen ondasunaren gainerakoa hurrenkera honetan esleituko da:

- Kooperatiba-hezkuntza eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren esku jarriko da.
- Bazkideei sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, eguneratuta, hala badagokio, borondatezko ekarpenetatik hasi eta nahitaezko ekarpenekin jarraituz.
- Estatutuetan edo batzar orokorraren erabakiz banatu ahal diren borondatezko erreserba-funtsetan duten partaidetza bazkideei itzuliko zaie, eta estatutuetan edo erabaki horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira, eta, halakorik ezean, bazkide bakoitzak kooperatibarekin azken bost urteetan egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren arabera,

edo, epe hori baino laburragoa izan duten kooperatiben kasuan, eratu direnetik aurrera.  
d) Derrigorrezko Erreserba Funtseko eta kooperatibaren ondasun likidoko soberakina, halakorik badago, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren esku jarriko da.

**Hiru.** Estatutu hauetako 52.Bat.b) artikuluan aurreikusitako ekarpenak itzultzen ez diren bitartean, baja hartu duten eta kooperatibak itzulketa ukatu dien titularrek sozietatearen ondasunen esleipenean parte hartuko dute, kooperatibaren hezkuntzarako eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioaren ondoren, eta, estatutuetan kontrakoa aurreikusten ez bada, gainerako ekarpenak itzuli aurretik.

## AZKEN XEDAPENAK

### **LEHENA. Kooperatiba-tartekaritza**

Kooperatiban sor daitezkeen auziak, beste kooperatiba batzuekin sortutakoak nahiz bertako bazkideekin sortutakoak, eta zuzenbidearen arabera aldeek askatasunez xeda ditzaketen gaiak, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren zuzenbide-tartekaritzaren esku utziko dira.

### **BIGARRENA. Letratu aholkularia**

Kontuen Ikuskaritzaren Legean ezarritakoari edo garapen arauei jarraiki urteko kontuak kanpoko ikuskaritzapean jartzera behartuta dauden kooperatibek letratu aholkulari bat izendatu beharko dute, Kontseilu Errektoreak hala erabakita.

Letratu aholkulariak sinatu egingo ditu Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak, zuzenbideari lotuta baldin badaude, Kooperatiben Erregistroan inskribatu daitezzen.

Erabaki horien egiaztapenek adierazita edukiko dute akta liburuan idatzi direla erabaki horiek letratuak izenpetuta.

Letratu aholkulariak gizalegez erantzungo du Kooperatibaren, bertako bazkideen eta hirugarrenen aurrean baldin-eta laneko arduragabekeriaren bat izan badu.

Funtzio hori ezingo da bete zuzendari-gerentea, Kontseilu Errektoreko karguren bat, Errekurtso-Batzordekoa edo Zaintza-Batzordekoa betetzen baldin bada.

Kooperatibaren eta letratu aholkulariaren harremana profesional liberal gisa zerbitzuen errentamendu bidezkoa izan daiteke, lan-kontratu bidezkoa edo sozietatean sartutakoa, Kooperatibako lan-bazkidesartuta.

**HIRUGARRENA. Delituen prebentzioa.**

Kooperatibak Delituak Prebenitzeko Eredu bat prestatuko du, eta horien jarraipena egiteko mekanismo bat ezarriko du.

Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onartuko du, eta barne hartuko ditu arriskuen mapa, erabakiak hartzeko protokoloa, kudeaketa-eredua, salaketa sistema, zehapen araubidea, eta Delituak Prebenitzeko Eredua egiaztatzeko, aldi behin berrikusteko eta eguneratzeko sistema.

**LAUGARRENA. Baliabide espezifikoak kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izan dadin.**

Kooperatibak indarkeriarik gabeko eta emakumeentzako eta gizonentzako berdintasun-printzipioak errespetatuko dituzten lan-espazioak eskaintzeko konpromiso sendoa hartzen du.

Sexu-jazarpenaren aurka jarduteko protokolo bat prestatzeko konpromisoa hartzen du. Protokolo horretan, aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira.

Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bazkide eta langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatuz jardun behar dutela jakin dezaten.